

# EMENDAKINAK

## III. BILTZARREA



# ATAL BATI

EMENDAKINAK ATAL BATI



Zbkia

20085

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

# “ABAGADUNE AZTERKETA” PONENTZIARI EMENDAKINAK

## 1. 6. LERROALDEA

### **Proposamena: beste atal bat gehitu:**

“Aintzindaritza jokamolde honetatik «negoiazio eta bake» prozesuak bultzatzen ari da, beti ere beren emaitzak ez badituzte aldatzen, edo hobe bere nagusitasun ekonomiko eta militarra sendotzen laguntzen badute”.

## 2. 9. LERROALDEA

### **Proposamena: gehitu:**

“Burruka ideologikoa «eta eguneroko praxian»”.

Patxi Erdozain Beroiz  
(Iruñea)

## 3. 12. LERROALDEA

### **Proposamena: gehitu:**

... Ekialdeko herriak “prozesuari dagozkion barne arrazoiengatik”, desegin dituen...

### **Zergatiak:**

Garbi uzteko erortze hori kanpo eta barruko arrazoiengatik ematen dela.

Patxi Erdozain Beroiz  
(Iruñea)

## 4. 19. LERROALDEA

### **Proposamena: ezabatzea “desgaste” hitza.**

### **Zergatiak:**

Badirudi hitz honek honako hau adierazten duela: sistema baliogarritasuna galtzen joango dela sistema horren barruan. Eta uste dut ezetz: Kapitalismoak baditu zuzentzaileak balia arazteko. Desgastatua dago jaio zenetik.

Patxi Erdozain Beroiz  
(Iruñea)

## 5. 22. LERROALDEA

### **Proposamena: testua gehitzea:**

... pitzadurak zabalduz. ondoren "Dena den argi dago Alemaniari ez zaio E.K.ren aurka jokatzeari interesatzen." gehitu, lerroaldearen beste guztia mantenduz.

### **Zergatiak:**

Alemaniaren jarrera E.K.kiko argi uzteagatik.

*Rafa Diez Usabiaga*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 6. 25. LERROALDEA

### **Proposamena: bukaeran gehitzea:**

... Sobiet Batasuneko, "Urriko iraultza eman zen nazioa", gizarte eta ...

### **Zergatiak:**

Badirudi ezberdintasunik nabarmenena honetan zetzan: Ekialdeko beste nazioetan iraultza «esportatu» egin zela.

*Patxi Erdozain Beroiz*  
(Iruñea)

## 7. 29. LERROALDEA

### **Proposamena: testua gehitzea:**

... "sentsazio" orokorra. ... ondoren "Dena den argi dago nahiz eta ezker abertzaleko borroka sozialismoaren alde dagoen guk ez dugula erreferente zehatza izan eta gure ezaugarriekin euskal gizartearen sozialismo bide propioa, dinamika guztiak aztertuz, eraiki beharko dugula". gehitu eta Ez dago Perestroikarik... bukaeraino dagoen bezala mantendu..

### **Zergatiak:**

Gure egoera konkretura testua egokitu.

*Rafa Diez Usabiaga*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 8. 32. LERROALDEA

### **Proposamena: bukaeran gehitu:**

"Baina aldi berean baldintzatzea, Gudu Hotza delakoaren garaiaren barruan, eta horregatik Moskutik markatutako ildoak jarraitzea".

### **Zergatiak:**

Ez da Afganisango kasu bakarra, hor daude Hungria, Txekoslovakia; arazorik nagusia (txostenaren beste atal batean aipatua) «copiadera» izan zen. Moskuk zuzentzen zituen prozesu guztiak.

Patxi Erdozain Beroiz  
(Iruñea)

## **9. 36. LERROALDEA**

### **Proposamena: kendu:**

"... «bide bezala» eta jarri «prozesuan»".

### **kendu:**

"«Alderdi honek ez du inoiz oztopatu behar» honako hau bakarra jarri «eta» (aurreko perpausarekin lotzen duela)".

### **Zergatiak:**

Ez zait erredakzioa gustatzen.

Patxi Erdozain Beroiz  
(Iruñea)

## **10. 39. LERROALDEA**

### **Proposamena: aldatu:**

"«kokatu dira» honen ordez beste hau «kokatu behar dute».

Patxi Erdozain Beroiz  
(Iruñea)

## **11. 48. LERROALDEA**

### **Proposamena: bukaeran gehitu:**

"NAZIOARTEKO ORDEN BERRIAREN sendotzea botere ekonomikoko hiru fronterekin (Japon, EEBB, EEE) botere militarra EEBB-k dutelarik. Beraien arteko harremanak (kooperazio edo enfrentamendua), beste nazioetako egoera ekonomikoa baldintzatuko du.

Patxi Erdozain Beroiz  
(Iruñea)

## **12. 50. LERROALDEA**

**Proposamena: gehitu: ahapaldi osoa gehitu behar nazioarteko lan egoerari dagokionez.**

"Mugimendu sindikalaren egoera orain arte aztertu dugun kontestu sozio-politikoari lotua egon da. Ekialdeko nazioen gora-beherak sindikatu ofizialen suntsipena eta ildo beretik edo berdintsutik mugitzen ziren munduko beste hainbat tokitako sindikatuen krisi sakona suposatu du (F.S.M.O.

Beste sindikatoak orokorki (CIOLS nahiz CMT direlakoen barruan sartuak) sozialdemokraziak arlo sozio-politikoan betetzen duen paper berbera jokatzeko ari dira.

Gaur ez diote kapitalismoari alternatibarik planteiatzen, leundu besterik ez dute egiten langileak jasotzen dituen golpeak plusbalia (seguratzeko bukaera gabeko prozesu honetan)".

*Patxi Erdozain Beroiz*  
(Iruñea)

## **13. 56. LERROALDEA**

**Proposamena: Lerroaldearen bukaeran puntu bat gehitzea testu honekin:**

"Halaber PSOEek, GAL, diru reserbatuak eta parapolizial taldeen inguruan jokatu duen papera ez genuke ahaztu behar".

**Zergatiak:**

Gure ustetan, ENAM-tzat eta edozein abertzalerentzat izan dituen eta izan ditzakeen ondorioak kontutan hartuta, atal honi arestian aipaturikoa erantsi behar zaio".

*Eskualdeko Idazkaritza*  
(Errioxa Arabarra)

## **14. 59. LERROALDEA**

**Proposamena: ondorengo testua gehitzea:**

"Estatu espainiarrak bere burua gizarte eta zuzenbidezko estatu demokratiko izendatzean oinarritzen du bere ihardun politiko propagandistiko osoa. Gai honi buruz luzez aritzeko asmorik gabe, funtsezko puntuak azaldu behar ditugu.

- Estatu honetako erregimena monarkia da, demokrazia hitzarekin erabat kontrajarririk dagoena. Ez dago demokrazia izaterik, Estatuko Burutza hautatzeko eta berari kritikak zuzentzeko inolako eskubide eta ahalmenik ez badago. Histori testu ofizialek eurek dioskute Frantziako Iraultzaz aurreko erregimena amaierazi zela, errepublika ezarri eta "monarkia desagertaraztean".

- Ez dugu ahaztu behar halaber, Francok berak estatuko Burutzaren Oinordetzari buruzko Legeaz berrezarri zuela monarkia, estatuan egin zen azken hauteskundera zapuztu egina zena."

**Zergatiak:**

*Damian Agirremota*  
(Bilboko Udaletxea)

## 15. 71. LERROALDEA

### **Proposamena: gehitu:**

... haundiko elementu "hiru"

"eta hirugarrena Estatuko puntu ezberdinetan ematen ari den II. errekonbertsioaren hauteskundeetako emaitzak izan ditzaketen ondorioak".

*Patxi Erdozain Beroiz*  
(Iruñea)

## 16. 85. LERROALDEA

### **Proposamena: 85. puntua: "a) Itunaren ondorioak eta bilakaera" aldatu eta hurrengoa jasotzea:**

...a) Itunaren ondorioak eta bilakaera Baskongadetan.

Halaber ondoko testua gehitzea proposatzen da:

...b) Bakea eta Tolerantziaren aldeko Akordioa Nafarroan.

\* Nafarroan ere PSOEek eta Estatuak bat egin ohi dute Ezker Abertzale nahiz ENAMen aurka. Aipatutako Akordioa Ajurianekoaren kopia da, Nafarroari egokitua eta kontutan hartu behar diren zenbait zehaztapenez osatutakoa.

PSOEek UPNerekin batera ezker abertzaleari egindako erasoak etzuen ENAM gelditzea lortu (hauxe zuen helburu baina zenbait eragozpen elementuen eragina nabaria izan zen.

\* Egungo estatu eredu barnean, Nafarroako PSOE eta UPNek ezker abertzalearen proiektu politikoaren aurrean defendatzen dutenak izan behar zuen Nafarroako Gizartearen baitan sortu beharreko eztabaida. Akordioak, ordea, lortu zuen eztabaida desbideratzea eta une hauetan ENAM eta honen barruan LABen eginkizunik garrantzitsuenetariko da gatazka behar den eremuetan kokatzea.

\* Azkeneko hauteskundeek Nafarroako gobernuan UPN-PP paratzeak Akordioaren susperketa lekarke. Beraz, Nafarroan PSEOren laguntzaile bizkorrak diren EB eta EAren jarrerak arreta haundiz aztertu beharko ditugu, ENAM deuseztatu nahian elkarrekin egiten dituzten ahaleginak oztopatu nahi baditugu.

### **Zergatiak:**

Atal honetan egiten den ikerketak ez duela Hegoaldekoegoera bere osotasunean jasotzen iruditzen zaigu. Hau dela eta Nafarroari buruzko ikerketa eta Baskongadetakoa berezi egin behr direla sute dugu, Paktuak nahiz Itunak sortu dituzten zenbait ondorio amankomunak direla onartzen badugu ere.

Paktuaren ondorioz hitz egiterakoan berriz ez dira aipatzen Nafarroako ezaugarri bereziak, Euskalherriko benetazko koiuntura osoa ezagutzeko ezinbestekoak direnak hauexek.

*Eskualdeko Idazkanitza*  
(Eribera)

## **17.** 104. LERROALDEA

### **Proposamena: gehitzea:**

PNV aldagai orokor modura hatzekotan Nafarroako egoera azalduko lukeen testua gehitzea proposatzen da. Hau onartuko balitz kontutan hartu beharko litzatekeen ikuspuntua zera da: UPNren iharduera politikoaren garrantzia gatazka sozio-politikoaren oraina eta geroari begira.

### **Zergatiak:**

PNV eta bere politika "gatazka politikoaren aldagai orokorra" arloan kokatzean sortzen zaigu zalantza.

Alderdi honen iharduera politikoaren garrantzia ukaezina dela ulertzen dugu eta ikerketa orokorrean kokatu behar dela, baina PNV aldagai bakarra bezala hartzea ez dela egokiena iruditzen zaigu. Dena dela, hala ulertzen bada, UPN eta PPren iharduera politikoak ere Nafarroan duten eraginaren ikerketan aldagai modura onartu behar direla deritzogu.

*Eskualdeko Idazkaritza*  
(*Eribera*)

## **18.** 110. LERROALDEA

### **Proposamena: lerroalde osoa ondorengo testuz ordezkatzeara:**

"Ezker abertzaleak arazo garrantzitsuak izan ditu euskal gazteriarengan gertatu diren era guztietako aldaketetara egokitzeko. Mezu eta inbentzio eskemak klabe mugikaitz eta dogmatikoetan mantentzeak ezker abertzalearen posizioaren permeabilitate zailtasunak eragin ditu. Gazteriaren erreibindikazio, bizitza filosofia, kontextu sozio-ekonomikozko balore berriak ez dira behar bezala interpretatu eta aztertu, zenbait sektoretan exzeptizismo eta tanjenzialitate boltsak sortuz".

### **Zergatiak:**

Baieztapen batzuk egiak izan arren ezezkorregi agertzen da.

*Rafa Diez Usabiaga*  
(*Ponentzi-Batzorde*)

## **19.** 112. LERROALDEA

### **Proposamena: kendu:**

"«iturri izan daitezke» hitzak eta beste hauek jarri: «erakunde bezala konprometitu behar dugun arazoak dira, gure proiektu alternatiboarekin lotzen jakin behar dugularik gainera»".

*Eskualdeko Idazkaritza*  
(*Eribera*)

## **20.** 129. LERROALDEA

### **Proposamena: ezabatzea edo gehitzea.**

"PNV barne, jendeak beren proiektuaren aurrerapenean sinesteko" esaldian PNV kentzea proposatzen da.

Hau ez balitz onartuko, zera esatea proposatzen da:

"PNV eta UPN barne, jendeak beren proiektuaren aurrerapenean sinesteko" hala nola PSOE.

### **Zergatiak:**

Baskongadetan laderdi erreferentzial gisa PNV hartzen bada, Nafarroan UPN alderdiaz hitz egin behar dela uste dugu.

*Eskualdeko Idazkaritza  
(Erribera)*

## **21.** 131. LERROALDEA

### **Proposamena: 131. lerroaldearen bukaeran honako testu hau sartzea:**

Madriren PSOEek ez duela ezertxo ere emanen jakinik, UPNren politika PSOEek egindakoarenari jarraitzea izanen da; inbertsio nahiz ekipamendu gashietara zuzendutako politiko hain zuzen ere. Era berean gastu publikoa gehiago kontrolatu du, enplegua sortzeko aukerak murriztuko dituelarik.

Atzerriko diru iturriak berrindartu eta baliabide komunitariei esker Nafarroako egoera sozioekonomikoa surpertzera bideratuko ditu UPNek bere indarrak. Europari begira duen erronkari aurre egiteko PYMES delakoa prestatzen ere egingen ditu ahaleginak, Nafarroako egitasmo baliagarria aurkeztu ahal izateko PSOEekin gobernu-paktua egiteko beharra ahortzi ezin delarik.

### **Zergatiak:**

PNVri buruz hitz egiten bada UPN ere aipatu behar da.

*Eskualdeko Idazkaritza  
(Erribera)*

## **22.** 136. LERROALDEA

### **Proposamena: lerroaldearen bukaeran testu hau gehitzea:**

"Nafarroan gobernuak galtzeak, gaur egun, PSOE oposizio sistematikoa egitera bultzatu du. Ahalegin guztiak UPN ahultzera bideratzen ari da (Alliren aitortpenak direla eta, elkarrizketarako jarrerak, etab.). Hauteskunde Orokorrak aurreratuko balira prest egoteko asmoz. Halaber ENAMeren inguruko politika tinko eta hertsia azaltzen du. Hala eta guztiz ere garbi dago gobernu-politika hauteskundeetako gorabeherak gairitu ondoren argituko dela."

**Zergatiak:**

Nafarroari buruzko zenbait aspektu ezagutuztat jotzen direnez aipatu behar direlakoan gaude.

*Eskualdeko Idazkaritza*  
(Eribera)

**23. 141. LERROALDEA****Proposamena: lerroaldearen bukaeran testu hau gehitzea:**

“EAK PSOerekin Nafarroan egin duen paktuarekin herrialdean finkatzen saiatu da, ezker abertzalearen jarrera «itxiak» bere proiektu politikoaren bidez ordezkatu nahiean.”

**Zergatiak:**

Nafarroari buruzko zenbait aspektu ezagutuztat jozen direnez aipatu behar direlakoan gaude.

*Eskualdeko Idazkaritza*  
(Eribera)

**24. 145. LERROALDEA****Proposamena: lerroaldearen bukaeran testu hau gehitzea:**

... UPNrekin egindko paktuak ahalmenu du Nafarroan alderdi honekin batera gobernatzek aukera. Horrela indartu du estatu mailan PSOeren aurrean aurkezten duen alternatiba politikoa. Azpimarratu behar da UPN eta PP duten lotura organiko estua eta horiek baldintzatzen dituela UPN alderdiaren erabakiak, PPK Madrilen erabakitzen duenak batez ere.

**Zergatiak:**

Nafarroari buruzko zenbait aspektu ezagutuztat jozen direnez aipatu behar direlakoan gaude.

*Eskualdeko Idazkaritza*  
(Eribera)

**25. 146. LERROALDEA****Proposamena: 146. lerroaldearen bukaeran testu hau gehitzea I.Bri dagokiona:**

“EB alderdiak, oso kokapen egokia eskeintzen dion ordezkari lortu du Nafar Parlamentuan hala nola zenbait udaletan. Badu honekin batera islada estatu mailan ere, baita ENAMekiko jarrera tinkoa ere; hau dela eta badauka eragina zenbait eskualde jakinetan eta bera indartzen ari da BHren aldeko sektoren kontua, Batzarre edo PSOeren ezker aldekoak esate baterako.”

**Zergatiak:**

Nafarroari buruzko zenbait aspektu ezagutuztat jozen direnez aipatu behar direlakoan gaude.

*Eskualdeko Idazkaritza*  
(Eribera)

## **26.** 182. LERROALDEA

### **Proposamena: lerroaldeari dagokion testua kentzea eta hurrengo jasotzea:**

"Euskadin hauteskunde sindikalek ELA eta LABen gorakada berretsi dute eta CCOO-UGTren ahultzea, Nafarroan ezik, herrialde honetan sindikatu hauek mantentzen bait dute beren indarra."

### **Zergatiak:**

Ezin da Nafarroan CCOO-UGTren egoera benetazko indar galtzearen ikuspegitik hartu; sindikatu hauek bait dute herrialde honetan gehiengoa eta Nafarroako langilegoaren kopuru haundi baten onspenaz dihardute. LABen gorakada nabaria azpimarratzekoa dela uste dugu, baina Nafarroan ELAk ere hartzen ditu CCOO-UGT indartzen dituen jarrerak. Horregatik iruditzen zaigu beharrezkoa aipamen hauek egin eta argitzea.

*Eskualdeko Idazkaritza*

*(Eribera)*

## **27.** 253. LERROALDEA

### **Proposamena: gehitu:**

"Interes berezia jarri behar dugu beren herrietako askapen prozesuan konprometiturik dauden erakunde sindikalekin eta arlo europearrean sindikalismo alternatiboa bilatzen dutenekin.

Gure lana eraginkorra izateko, multinazional beraren barruko enpresa ezberdinen arteko harreman sindikalak bultzatu behar ditugu.

*Patxi Erdozain Beroiz*

*(Iruñea)*

# “EKINTZA SINDIKALA” PONENTZIARI EMENDAKINAK

## 1. 11. LERROALDEA

### **Proposamena: testua aldatzea.**

“SESB-i dagokionean batipat”ren ordez “SESB” ohiari dagokionean batipat” jarri.

*Joselu Cereceda (Bilbo)*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 2. 12. LERROALDEA

### **Proposamena: testua aldatzea.**

“...SESB-en %3”ren ordez, “...eta SESB ohian %3” jarri.

*Joselu Cereceda (Bilbo)*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 3. 13. LERROALDEA

### **Proposamena: ezabatu.**

“Ezin oraingoz asmatu sobietar ekonomiak...” azkeneraino, kendu. SESBean gertaturikoak gezurtatu bait du.

*Joselu Cereceda (Bilbo)*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 4. 24. eta 25. LERROALDEAK

### **Proposamena: ezabatzea:**

Vidal Villaren lanari buruz egiten diren aipamenak, (24. eta 25. lerroaldeak), batez ere... «eta bestetik egungo estatu-nazioak direla, eta bigarren hauek izateko arrazoia bera galtzen joanen direla...” dioenean.

### **Zergatiak:**

Atal honi buruzko eztabaida egitea interesgarria litzatekelako ustea dago baina Biltzarrerako txostenean ez isladatzea beharrezko eztabaida hori egiteke.

*José Alcedo*  
*Burdingintza (Bilbo)*

## 5. 24. eta 25. LERROALDEAK

### **Proposamena: ezabatu eta aldatu.**

a) 24. lerroaldea ezabatu.

b) 25. lerroaldea:

"Vidal Villaren konklusiorik... dagoela iragartzen du"ren ordez, "Aipatzekoa da nola ekonomiak mundu mailako akumulazioa izateko joera duen bere promotore nagusien eskutik, enpreak multinazionalak eta nazioarteko bankuak. Samir Amin bat etorri, prozesu honek mundu-mailako akumulazioa, pilaketa, dakarrela ikusten dugu. Are gehiago, epe luze batean, gaurko sistemak munduko estatu bakarra sortzera bideraturik dagoela ematen du" jarri.

### **Zergatiak:**

Vidal Villari erreferentziak kendu behar dira. Lehen lehenik, halako erreferentziak erabiltzeak nahigabeko lotura erakar diezagukeelako, eta, bestetik, ados egonda ere, nolabaiteko identifikazioa suposatzen duelako. Biltzar baten markoa ez da komenigarria.

*Joselu Cereceda (Bilbo)*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 6. 26. LERROALDEA

### **Proposamena: testua aldatzea.**

"Sistemaren Periferia deituko dugunaren mugen barruan geldituko dira"ren ordez, "Sistemaren Semiperiferia..." jarri eta gehitu aparte, "Dena den, Txekoslovakia, Hungaria eta Polonia, "aberatsen taldea" egon arren, ez dira egongo "herri aberatsen" gisa, baizik eta Ekan, Portugal, Grezia edota Irlandako Estatuaren antzerako papera jokatzera tokatuko bide zaiela. Areago, pentsa daiteke Txekoslovakia, Polonia eta Hungaria "koltxoi" gisako papera jokatzera deituta daudela, Ekialdeko gainerako herrien aurrean (SESB ohia osatzen zutenak, alegia), Ipar Amerikan kapitalismoak Mexikorekin egin duen antzera".

### **Zergatiak:**

"Periferia hitza Afrika/Asiako zenbait herrirentzat utzi behar da. Txekoslovakia, Hungaria eta Poloniaren papera zehaztu behar da.

*Joselu Cereceda (Bilbo)*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 7. 27. LERROALDEA

### **Proposamena: testua ezabatu eta aldatzea.**

"Vidal Villarentzat, edozeian analisisgilerentzat ere" kendu. SESB agertzen den laku guztietan, bere ordez SESB ohia jarri. "Perestroikak aurrera... ikusgarriak kontsegitzeko" kendu.

*Joselu Cereceda (Bilbo)*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 8. 28. LERROALDEA

### **Proposamena: testua aldatzea.**

"...gerora hiru bloke kapitalista izanen direla..."ren ordezt, "gerora hiru area kapitalista izanen direla" jarri eta "OTAN buru duela"ren ordezt, "Estatu Batuak buru direla" jarri.

*Joselu Cereceda (Bilbo)*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 9. 29. LERROALDEA

### **Proposamena: testua aldatzea.**

"SESB"ren ordezt "SESBohia" jarri.

*Joselu Cereceda (Bilbo)*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 10. 31. LERROALDEA

### **Proposamena: testua aldatzea.**

"Vidal Villak dio azkenean"ren ordezt "Ba dirudi" jarri. "Bukatzeko dio" kendu baita komatxoak ere.

*Joselu Cereceda (Bilbo)*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 11. 61. LERROALDEA

### **Proposamena: testua aldatzea.**

"...baita ere, erabakizun dauden... hartzekoa bait da"ren ordezt, "...eta normalizazio politika erraztuko den aldaketa konstituzionala (autodeterminazio eskubidearen onespena, batez ere)" jarri.

*Joselu Cereceda (Bilbo)*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 12. 76. LERROALDEA

### **Proposamena: testua aldatzea.**

"EKA eta Gobernu Zentrala ... tik ... bizi dugun zalantza"raino ezabatu.

*Joselu Cereceda (Bilbo)*  
(Ponentzi-Batzorde)

### 13. 77. LERROALDEtik 83.raino

**Proposamena: lerroalde hauek (1.3.2.1. atala) idatzita dauden bezala 1.3.1. atalean (Puntu Orokorrak) sartzeta eta "HEGOALDEKO SEKTORE AGROPEKUARIOA" izenpean.**

#### **Zergatiak:**

PAC delakoaren oinarritzko ondorioak berdintsuak direla deritzogu bai Baskongadetan bai Nafarroan. Era berean Madrildik, Gasteiz edo Iruñetik bideratutako PAC honen politika ezberdinek Nafarroan eta Baskongadetan sortuko dituen eraginak beretsuak izango direla uste dugu, ustiapen familiar edota lurgintza moeta diferenteak egin arren.

Hau dela eta ulerkaitza suertatzen zaigu "Hegoaldeko sektore agropekuarioa" agertu beharrean "EAEko sektore agropekuarioa" azaltzea.

*Eskualdeko Idazkaritza (Eribera)*

### 14. 123. LERROALDEA

**Proposamena: testua aldatzea.**

"Euskarazko bertsioa ondo dago. Erdarazkoa aldatu behar da, "minimizatzen" txarto kokaturik bait dago. Eta hori bi arrazoiengatik nagusiki: batetik, horixe delako gainerako sindikatuak egiten saia direna -alegia-, krisialdi ekonomikoaren ondorioak "urritzea"- eta bestetik, ez dugulako uste hori denik parte hartzea justifikatzeko arrazoirik nagusia".

*Joselu Cereceda (Bilbo)*  
*(Ponentzi-Batzorde)*

### 15. 126. LERROALDEtik 134.raino

**Proposamena: "Euskal" ezabatu eta testu hau gehitu:**

126.- Nafar ekonomiaren inguruko sektoreei buruzko gainbegirada behar beharrezkoa dugu. Geure politika propioa egituratzeko garaian berauek duten garrantzia galtzea edota desagertzea neurririk gabeko kaltea litzateke. Horregatik, kontutan hartu behar dugu Euskal Herriaren politika baldintzatzen dutela. Aurreko hamarkadaren ondoan izugarritzko beherakada ekonomikoa iragartzen da datozen urteetarako.

127.- Kezkagarri egiten zaizkigun arloan honako aspektuak azpimarratu beharrean gaude: atzerriko inbertsioak jeitsi direla, sektore agroalimentarioan nabarmentzen den prestakuntza falta, erronka europearrari begira sortutako PYMES delako ugariak eta konstrukzioan eman den geldialdia.

128.- 90. urtean izan zen atzerriko inbertsioa %62 jeitsi da 91ean; 40.000 milioitik (honetatik 27.000 SAFFA taldeak sartu zituen SARRIOren %50 erostean) 13.000 miloira pasa da, hau da, EAEko inbertsio kopuruaren ozpira (17.000).

129.- Sektore agroalimentarioak langilegoa uzten segitzen du eta eraldaketa mailan jabe diren nafar enpresak beren "holding" direlakoak atzerrian berregiten ari dira (Peru, Taiwan, e.a.) produktua eta langilegoa merkatzeko asmoz. Sektore honetako PYMESak berregituraketa bidean daude eta honek

eskaintza elkarte ttikietan pilatzera behartzen ditu. Horrela bada, azken hauek itxi beharrean aurkitzen dira.

**130.**– Sektore agroalimentarioan iragartzen da langile murrizketa ere, bai eraldatze fasean bai produkzioan. Hemen azpimarratu behar da zainzurian nabaritu den estatuko herrietatik datorren langilego murrizketa (Andaluzia) Afrikako iparraldetik datozenek ordezkatu badituzte ere hoburua edota tomatea lantzean (honetan gutxiago, daukan mekanizazioa dela eta).

**131.**– Azken bi urteotan nafar ekonomia berrindartu duen sektorea konstrukzioarena izan da, 15.000 langile izan dituelarik. Ihaz, berriz, nabaria izan zen jeitsiera eta hau benetan larria suertatzen da Nafarroako makina bat eskualderentzat.

**132.**– Egoera honi gehitu behar zaio %6,2 inflazioa, estatukoa %5,5, izan den bitartean. Eta honek ez du erakusten soilik zein garesti egiten den Nafarroa langile klasearentzat; Nafarroa Europako batazbestekoaren azpitik 10 puntuz dauden Sizilia edota Kalabriarekin alderatzen dela, Bruselasean eginiko ikerketen arabera. Esan daiteke, berak, Nafarroako ekonomia ez dagoela prest datorkigun Europako erronka ospetsuari aurre egiteko.

### **Zergatiak:**

Ponentzian "Nafar nahiz euskal ekonomiaren geroa" izenburuaz azpimarratzen dena ezabatu beharko litzatekeela uste dugu. Hasteko, ez zaigu beharrezkoa iruditzen "euskal" azpimarkatzea, EAEaz ari garenean "nafar" gehitzen ez den bezalaxe. "Euskal" terminoa sartzen bada sektoreei buruzko artikuluek Hegoaldeko egoera osoa aztertzen dutelako dela pentsatzen dugu. Horregatik ikuspuntu orokorrez azertu beharko lirateke.

Nafarroari buruzko puntuan, azaltzen ez diren zenbait aspektu jaso beharko liratekeelakoan gaude. Halaber besteren batzu ere, zeintzuren muina onartzen dugu arren planteamenduak bestelakoak behar luketela uste izan.

*Eskualdeko Idazkaritza (Erribera)*

## **16. 129., 132. eta 133. LERROALDEAK**

**Proposamena: lerroalde hauek, idatzita dauden bezala, 1.3.1. atalean (Puntu Orokorrak) sortzea.**

### **Zergatiak:**

Hegoalde osoari dagozkion sektoreak direlako eta ez bakarrik Nafarroari.

*Eskualdeko Idazkaritza (Erribera)*

## **17. 130. LERROALDEA**

**Proposamena: lerroaldea ezabatu.**

### **Zergatiak:**

"Hegoaldeko Sektore Agropekuarioa" atalean jasotzen denari deus berririk eranstean ez diolako.

*Eskualdeko Idazkaritza (Erribera)*

## 18. 164. LERROALDEA

### **Proposamena: testua aldatzea.**

"Kapitala eta lanaren arteko ... definitzen dutenak" esaldia aldatu, ondorengo jarritz:

Politika ekonomiko eta sozialak (politika fiskala, aurrekontuena, errenta politika, politika industrial, enplegu politika,...) modu oso garrantzitsuz eragiten du indar koerlazio egoera zehatz bat osatzean, indar egoera honen adierazpen orokorra ordenamendu juridiko eta legezko baten modura agertu arren. Ezarria izan ondoren, aipatu ordenamendu juridikoak kapital eta lan arteko indar koerlazioa bera baldintzatzen du.

### **Zergatiak:**

Lan-ordenamendu juridikoa eta honen barruan legegintz jatorria oztupo garrantzitsua bada ere, ez da aipatutako koerlazioa mugatzen duena indar koerlazio hori adierazten duena baizik.

*Jose Alcedo*  
*Burdingintza (Bilbo)*

## 19. 175. LERROALDEA

### **Proposamena: testua gehitzea.**

Lerroaldearen bukaeran osatzea ondorengo testu honekin:

"Autonomia kolektiboa alderdi sozialek, patronala eta sindikatuak, lan harremanetarako sistema erregulatu eta ordenatzeko duten ahalmena esan nahi du.

Autonomia kolektibo printzipioa ezarriz, alderdiek lan harremanaren edukia ezartzen dute, Estatuaren partehartze erreglamentariorik gabe, negoziazio kolektiboaren instrumentuaren bidez, askatasun sindikalari eta gatazka kolektibo neurriak hartzeari erabat lotutako eskubidea."

### **Zergatiak:**

Komenigarria iruditzen zaigu autonomia kolektiboaren esanahia definitzea.

*Manu Aranburu*  
*(Ponentzi-Batzorde)*

## 20. 184. LERROALDEA

### **Proposamena: lehen hiru lerroak ezabatu eta ondorengo testuarekin ordezkatu:**

"Ondorioz, uste dugu negoziaketa kolektiboak ez duela izan behar instrumentu bakarra gure ekintza sindikal eta erreibindikatiboaren interbentzioa bideratzeko. Honek instrumentu abaniko zabalago, atal gehiagoko batez hornitu eta jaso behar ditu, gure ekintza sindikala gaur egungo errealitate ekonomiko eta sozialak langileentzat planteiatzen dituen arazo larriak gainditzeko perspektiba argi eta erabaki batetan kokatzea nahi badugu. Interbentzio instrumentu modura ia erabat negoziazio kolektibora bakarrik jotzea, sindikal murrizte antzeko zerbaitetan erortzea eta ekintza sindikalari

arazo estrukturalen konponketan perspektiba estretejiok hornitzeari uko egitea da." Ekintza Sindikalak, NKren iharduera...

### **Zergatiak:**

*Manu Aranburu*  
(Ponentzi-Batzorde)

## **21. 229. LERROALDEA**

### **Proposamena: lerroalde honen atzean berri bat gehitzea testu honekin:**

"Halaz ere, nabaria izanik gazteak eta emakumeak direla kuantitatiboki multzo baztertuenak lan merkatuan. Marginazio soziala, eta bereziki lan merkatuan, areagotu egiten da zenbait sektoretan, hala nola preso-ohiak, sindikalista konprometituak, hirugarren munduko etorkinak edota ezgaitasunak dituzten pertsonak.

Errealitate honen jakinaren ganean eta gure karakterizazioa sindikatu sozio-politiko izanik, LABek bere gain hartu behar du marginatu sozialen defentsa eta xenofobiaren aurkako borroka helburu bezala. Dena den, honek ez du area organizatibo zehatzik sortu behar, esturktoretan izan behar direnak, eta eskualdeko esturkturak bere esparru territorialetan eta Ekintza Erreibindiktiboaren esturktura ezberdinak goiko esparru territorialetan izan behar dira, hain xuxen ere, kolektibo hauen defentsan partehartzeko bidea bultzatu eta gauzatuko dutenak".

### **Zergatiak:**

Ekintza sindikala ponentzian ez da aipatzen.

*Agustin Gorbea (Gasteiz)*

## **22. 237. LERROALDEA**

### **Proposamena: Lerroalde honen atzean berri bat gehitzea testu honekin:**

"Ustelkeriaren hedapena baieztatzen da, Arduralaritzaren hainbat esfera eta mailetan dinamika ustel hori nabaria da, Arduralaritza publikoa garbia izatearen garrantzia ez da duda-mudatan jartzen, gizarte justoago bat eta berdintsuago bat helburutzat duelarik.

Esparru honetan, garatu beharrean aurkitzen gara gure ekimenak praktika ustel hoiek geldiarazteko eta ezartzeko baldintzak ezabatu, hau dena langile publikoko buruan sartarazi behar dugu, ideologikoki beraz prestatu".

### **Zergatiak:**

Instituzioetan lanean diharduen militantziarentzat helburu bat beharrezkoa da. Praktika horrek, LABek lortu nahi dituen helburuentzat fretoa izan dadin gure proiektorentzat, Instituzioetan barnean dauden elementu batzu eta aldaketa horren aurka azalduz.

*Agustin Gorbea (Gasteiz)*

## **23.** 284., 285. eta 286. LERROALDEAK

### **Proposamena: Lerroalde hauen testua aldatzea ondorengoa jarriz:**

"Negoziazio esparru desberdinetatik piskanaka inposatu duten negoziaketa kolektiboaren usteldurak, UGT, ELA eta CCOOren praktika desmobilizatzaileak, beren erreibindikazioen aldeko borrokaren bidez lorpen garbiak edukitzeko aukerarekiko langileen beraien mobilizatzeko gaitasunari buruzko konfidantza galera sortu du langileengan.

Enpresa komiteak aldatu diren heinean, langileen organu bateratu izatetik enpresetako koordinadora sindikal izatera, eta fabrika asanbladek beren gaitasun kritiko eta mobilizatzailea galdu duten heinean, informazio bilketarako organu pasibo bihurtuz LAB ez da gai izan, enpresa komite eta negoziaketa sektorialetako indar erlazio desberdin batetan, N.K.ak hartu duen bide honekiko dinamika partehartzaile desberdin eta rupturista batetarako bukaerainoko aldaketa bat garatzeko. Honen emaitza izan da etsipen giro bat eta itxarote, desmobilizatzaile jarrera bat finkatzea, N.K. langileez kanpoko zerbaiten modura kokatzen duena. LABen praktikak ezin du izan eraman gaituzten marko sindikal honez kanpoko."

### **Zergatiak:**

Fabrika asanbladetatik eta hauek bultzetik dinamika hori hautsi. Langileen bertako partehartze errearen bidez erreformistekiko kontrajarria den ikuspegi sindikal baten bultzatzearekiko paralelo kokatzen da, hemen LABeko Sail Sindikalak, eta herrialde eta nazional mailako esturturek langileen partehartze dinamika bultzatuko duen papera jokatu beharko dutelarik. Langileen behar erreibindikatiboetatik abiatuz jarrera erreformista desmobilizatzaileekiko konfrontazio ideolojiko bilatu. Langileei adieraziz mobilizazio bidez N.K.an aurrera egin daitekeela. Nahitaezkoa da langileengan ikuspegi orokor sakonago bat eragiteko eta beraiengan gure helburuen aurrerakada bat dieratzeko.

*Jose Alcedo  
Burdinintza (Bilbo)*

## **24.** 290. LERROALDEA

### **Proposamena: Lerroalde honen atzean berri bat gehitzea testu honekin:**

"Bai Baskongadetan bai Nafarroan Lan Hitzarmena egun mahai Sektorialetan burutzen dira. Negoziaketa Marko hauek Instituzioen aldetik berkokatzen ari dira, Arduralaritzak proposaturiko aurrekontuak, zalantzarik gabe, ez datoz bat LAB-ekoekin.

Marko hauek, bai Nafarroan eta Baskongadetan berkokatzen saiatzen dira. Aukera ekonomiko ezberdinak, errealitate ezberdinak indarrak eta mobilizapenak kontuan hartuz ez dira berdinak Arduralaritza guztietan, batez ere Udaletxe eta Ahaldundi markoan. LAB-ek lortu behar dituen helburu politiko-sozialak, langilegoaren lan baldintzen parekatzea Arduralaritza ezberdinetan Hego Euskal Herrikoak. Beraz marko zabalak negoziatzeko sektore hauetan lortu behar genituzke horrela ezabatuz errealitate ezberdinak zentroetan eta dinamika korporatibistak.

LAB-ek egungo Arduralaritzaren bizkarhezurra kuestionatu behar du, etorkizuneko helburu politikoa jokoan bai dago".

### **Zergatiak:**

Negoziaketa markoa lantegian, analisis ezberdin bat behar du Instituzio mailan, hauek atal estrategikotzat jotzen bait dugu gure proiektu politikoan. Negoziaketa edo lan hitzarmena ez da beraz helburu bat tresna bat baizik.

*Agustin Gorbea (Gasteiz)*

## **25. 311. LERROALDEA**

### **Proposamena: lerroalde osoa ezabatzea eta testu hau sartzea.**

"Estatu mailako komenioen agindupean dauden sektore, enpresa eta zentro publikoetan, gure strategiaren helbururik nagusiena, estatu mailako negoziazio batasuna hautsi eta Euskadi mailako negoziazio baten alde burrukatzearen beharra adieraziz aipaturiko komenioek ukitzen dituzten euskal langileenganako mezua indartzea da.

Horretaz gain, estatu mailan gure kideko diren beste indar batzuekiko harremanak bilatzen saiatuko gara, indar hauek nazionalitatekoak zein ezker sindikalekoak direlarik, eta beharrezkoa eta egingarria baldin bada koordinaketa eta ekintzarako batasuna lortzera jo behar dugu, ondoko bi helburu heuekin:

a) Sindikatu erreformazaleen kontraesanak bilatzea eta estatu osoko langileengan presioaren bidez sindikatu erreformazale horiek ekintza sindikalerako darabilten ildoan aldarazi eta berau negoziaketa kolektiboan gauzaraziko duen eritzia sortaraztea.

b) Estatu mailako enpresa eta sektore hauetako langileen artean gure mezua eta helburu nagusia zabaltzea eta langile horiek gure alde jartzea.

Hori guztiori aipaturiko komenioek ukitzen dituzten sektore eta enpresetako langile guztiekiko elkar-tasun jarrera batetik".

### **Zergatiak:**

Txostenak ez du lar ondo azaltzen estatu mailako komeniodun enpresa eta sektoreetako eskuhartze sindikala bideratzeko era.

*Begoña Campo Lasuen (Bilbo)*  
(Kooparativisten taldea)

## **26. 325. LERROALDEA**

### **Proposamena: Lerroalde honen atzean berri bat gehitzea testu honekin:**

"PRECO-k bere gain har lezake Administrazio Publikoen hainbat lan. Planteamentu batzu Udaletxe batzuetara zentral sindikal batek egin duen bezala, nahiz eta oraindik jakin ez honen balioa, bide horretatik ez bait da tramitatu oraindik deus.

3-4 urte behar du tramitea Contenciosos-administratibo delako bide horrek erabakia eman dezan, bai norberarenak bai taldekoak. Horrela da, bide hori ezinezkoa dirudi. PRECO banean dauden mekanismoak arbitrajea bane, garrantzi handikoa izango zen hainbat erabakitan".

## **Zergatiak:**

Etorkizunean eman daiteken zera eta eman behar ez zena, PRECO aurrean ez dugu aldatu behar gure interbentzio linea, funtzionario pertsonalgoaren arazoak konpontzeko bidean edo Contencioso-Administrativo deiturikoa hainbat konfliktoetan, baikorra litzateke, desfase handia bait dago erreklamazio eta erresoluzioa ateratzerakoan behar den denbora, askotan bide hori ez hartzera eramaten du.

UGT-k Bizkaiako Udaletxetan PRECO-ren bitartez argituko direla hemendik aurrera. Hau idazterakoan, guk dakigunez, ez da bat bera ere tramitatu.

*Agustin Gorbea (Gasteiz)*

## **27. 338. LERROALDEA**

### **Proposamena: Testua aldatzea**

Sindikatuaren ordezkari... tik puntu bukaeraraino ezabatu eta testu hau sartu: "Sindikatuaren egitura guzti-guztietan eztabaidatu ondotik eragin horretarako deitutako konferentzi Nazionalak har dezala azken erabakia, proposatzen da".

## **Zergatiak:**

Ezta batere argi adierazten azken erabakia ze egiturari dagokion.

*Manu Aranburu  
(Ponentzi Batzordea)*

## **28. 373. LERROALDEA**

### **Proposamena: Ierroalde berri bat sortze (373.ondoren) "SINDIKATUAREN JARRERA LANEKO IHARDUERA BERRIEN AURREAN" izenpean eta testu honekin:**

"Merkatu libreak sortarazten duen konpetibitatearen ondorioz kapitalak eraso mota berria egiten digu, somatzen hasi garena eta urte askoz iraungo duena.

Orain arte produkzio sistema atzeratua gelditu da, lana soldata eta sari gehigarrien bidez ordaintzeko prozedurak ez bait du asetzen kapitalak nahi duen ez kalitate ez produktibitatea.

Klase filosofiak desagertarazi eta kapitala lanarekin interes berak defendatuz ihartueraztean dago eraso. Horrela lortuko litzake konpetibitate, produktibitate edota kalitatea haunditzea enpresaien ahalegin gutxienaz.

Sistema berriaren bidez langileak ez du soilik lana egin behar baita bere adimen osoa kapitalaren interesak bultzatzean jarri ere.

Filosofia hau Japonen ezarria da, mendebaldean ere bidean, eta honako hau uzten du agerian:

- Klase desagerpena baieztatzen duela.
- Enpresarekiko elkarlan estuan sindikalgintza, alferrikakoa suertatzen da, nolana hiko izaera duela ere.

- Langileen arteko bereizketa: langile trebeak alde batera eta traketsak, zabarrak, elbarriak... bestera.

- Produktibitatea ugaltzen den neurrian lanpostu kopurua murriztuz joango da.

Enpresarekiko harreman estua suspertzen duen filosofia, besteak beste, lana taldeka eginez eta etengabeko hobekuntzaz ezartzen da. Langilego osoa lan mota guzietarako trebatu z, funtzionamendurako ideiak eskeintzen dituelarik eta bai garbiketaz bai absentismoaz arduratzea ziurtatuz halanola kalitateaz, kapitalaren arrakasta bermatua gelditzen da.

Produktzio sistema berri hau langile mugimenduaz kontzientziatutako langileen artean ezartzea hagitz zaila baldin bada, ez da horrela suertatzen langile berriengan (beren kontratuetak baldintzengatik hain zuzen ere).

LAB sindikatuan ahalegin guziak egin beharrean gaude langilea enpresan integratu nahi honen aurka, langileria eta sindikalgintzaren inguruko aldarrikapen guziak ukatzen dituelako.

Onartu beharra dago, bestelalde, taldeka lan egiteak badituela alderdi onuragarriak: langile mugimenduarentzat: laneko iharduera aldatzeak dakarren egunerokotasun zama haustea esate baterako, edota beti postura berean ez aritzeak suposatzen duen laneko osasunaren hobetzea hala nola lanerako balioaniztasunak eragiten duen kualifikazio sustapena. Puntu hauek lortzearren borroka daitekeelakoan gaude, baldin eta ez bada elkartasuna baztertzen, lanpostuak galtzen, langile elbarrien egoera okertzen edota, azkenik, klase-sindikalgintza desagertzen.

### **Zergatiak:**

Lan metodo berriei buruz hitz egiten hasi beharra dago.

*SEAT ko Sekzio Sindikala (Iruñea)*

## **29. 376. LERROALDETIK 379.raino**

### **Proposamena: 376. Lerroaldetik 379.raino ezabatzea eta testu hau sartzea:**

"Gaurregun Hego Euskal Herriko emakumeen 2/3a, lanpostu bat betetzeko adin eta egoeran egon arren, ez da populazio aktibotzat ematen; ez dira, lanpostu bat betetzeko eskubidea duten pertsonatzat, alegia. Ez dira ez langiletzat ez langabetutzat hartzen, ez dira estatistiketan azaltzen ere; «langabezi tasa» jeisten laguntzeko era abila besterik ez dugu. «erreserba poltsa» bezala ordea leku garrantzitsu bat betetzen dute.

Emakumeen langabezi tasa altuena da adin guztietan, egoera hau 25 eta 54 urte bitartean larriago bilakatzen da eta 35-44 urte bitartean iristen da maila gorenera. Emakume ezkondu aktiboen langabezi probabilitatea hirukoitza da gizon ezkondu aktiboenarekin alderatzen badugu. Hego Euskal Herriko emakumeen aktibitate tasa Europako batz bestekoa baina txikiagoa dugu.

Krisi industrial egoeran lehenengo emakumeak botatzen dituzte lanetik, lan-merkatuan diskriminatu egiten dituzte eta lana lortzen dutenean bere promoziorako aukerak askotzaz txikiagoak dira. Lan bera eginda soldatan mailan gehien diskriminatuta daudenak emakumeak dira baita ere.

Beraiek jasaten dute aldi baterako kontratazio gehiago. Langabeziak berengan duen eragina, emakume gehienak lan jakin eta gutxi batzutan aritzea, familiarekiko laguntza milan gehiegizko ordezkontza, e.a.

Diskriminazio mota asko dago. Egia da gaur egun itxura gehiago gordetzen egiten dela, horretan datza aldaketa, baina normalean horrek marginazioa indartu besterik ez du egiten. Horrela izkutuan dauden bitartean ez zaie soluziorik ematen. Gizonengan zalantzan jartzen ez den gaitasun eta prestakuntza emakumeok frogatu behar dute.

Lana sexuaren arabera banatzeak eta Gizarte honek emakumeari ezarri dion menpekotasun funtzioak heziketa eta promoziorik eza dakarte; eta ondorioz langileen kolektibo zapalduenetan geratzea. Ikasketa mailak ere ez du bermatzen diskriminaziori eza; unibertsitari mailako pertsonen artean ere emakumeek dute langabezi tasarik altuena.

«Gizonena» kontsideratzen den munduan (lan munduan, adibidez) sartzera ausartzen diren emakumeak, arrotz eta ez onartuak izaten jarraitzen dute hori ez bait da «bere lekua».

Lan Zentroetan ere lan banaketa sexuaren arabera egiten da. Honela, batzuen eta besteen, «berezko jarrera» edo arrazoi fisikoen arabera egiten da oraindik banaketa profesionala. Emakumeak soldata, status eta maila txikiagoa duten «emakume lanetara» baztertzen dira; praktikaan ohituraz etxean egokitzen zaizkion lanen jarraipen bat besterik ez dira lan hauek.

Gizon batek lan soldataduna, soziala, sindikala eta aitatasuna batera oso ondo eramaten dituen bitartean, azpimarratu beharra dago, emakume batentzat hori eginbehar heroikoa dela eta zerbait baztertu beharrean aurkitzen dela.

LAB bezalako Erakunde sozio-politiko batek Nazional eta Sozial askapenerako borroka eta ondorioz emakumeen, aurrera eramateko konpromezua hartzen badu, bere burua askatzeko konpromezua hartu behar du. Sindikatuaren antolakuntza Marko guztiek, salbuespenik gabe, arlo honetan egiten diren aurrerapen eta atzerapenak agerian utzi behar dituzte.

LAB gizarte beraren ispilu bat da, nahiz eta garbi egon gure Erakunde barneko kontraesanak beste maila batekoak izan eta halaxe beste maila batean mugitzen direla.

Gainera, gure Erakundeak emakumearen lan eta antolakuntza problematika bideratuko duen Lan-Arlo berezi bat eduki behar du".

### **Zergatiak:**

Gaur egungo egoeran kokatzeko, 1970-80 inguruan hasi eta oraindik gainditu ez dugun krisi ekonomikoak Hego Euskal Herrian izan zituen ondorioen ikuspegi bat izatea ezinbestekoa da; Honela bakarrik ulertuko bait dugu krisia arintzeko hartu ziren neurriak arlo ekonomikotik at urrunago joan zirela. Egoera honek ondorio oso konkretuak izan ditu Euskal Emakume langilearen kontzientzia eta bizi baldintzetan.

*Arantxa Sánchez (Irún-Hondarribi)*

*Lola Gómez (Bilbo)*

*(Emakume Taldea)*

## **30. 383. LERROALDEA**

### **Proposamena: ezabatzea:**

"Belaunaldi batean gizarte egituran..."tik lerroaldea bukatu arte.

## Zergatiak:

Lerroalde honek azalpenik gabe ez bait du deus ere esaten langileen Mugimendua eta Gazteriar buruz. Zergatik hartu behar ote du protagonismoa?

José Alcedo  
Burdingintza (Bilbo)

## 31. 386. LERROALDEA

### **Proposamena: 3.5. artikuluan, 386 lerroaldearen ondoren pertsona Elbarrien kolektiboa gehitu testu honekin:**

"Elbarriak populazioaren sektore bat osatzen dute, gehienetan lanpostuetatik kanpo eta askotan azpilan segregatzaile eta seudokaritatezko formulei lotuak. Eta, hori, kuantitatiboki oso garrantzitsua den kolektibo bat izan arren: 80.000 ezindu zentsatuak Hego Euskal Herrian.

LABek bere egin behar du kolektibo honen erabateko integrazio laboralaren beharra, oharturik gizarte justu, igualitario eta elkartasunezko bat marjinazio eta konpetitibitate hutsaren aurkako dela.

Gaur egungo explotazio kapitalista sistemaren oinarrian dauden arrazoiek, arrazoi ekonomiko hutsek, galerazi dute eta galerazten dute Hego Euskal Herriako milaka eta milaka lagunek ebere ahalmen sortzailea ematea gizarteari, marjinazio eta erabateko autoestimarik ezean utziz. Hau, koiuntura ekonomikoaren gora beheretatik kanpo, hau da, berdin da erabateko enplegu egoera edo krisia.

Ondorioz, gure lanaren zuzenbidea ondorengo izango da:

A) Gure militanteengan erantzun instituzional paternalista eta alihenanteak bakarrik aurkitzen dituen arazo honen izaeraren kontzientzia sortarazi.

B) Negoziazio kolektiboaren bidez enplegu integratua sortzea bultzatuko da, patronalari legea betetzea exijituz elbarrientzako plazak jasotzeari eta hauen gehitzeari dagokionean.

C) Era berean ahalegina egingo da enpresa pribatu zein publikoek elbarrientzako gaitze ikasaroak egin ditzaten, batez ere beraien lanpostuak egokitzeko balio izan dezaketen teknologia modernoei dagokienean.

D) LABek ezindu gertatzen diren pertsonen birziklaia asumitu beharko du, lan bizi aktibotik kanpora geratzea ekidinez.

E) Sindikatuko elbarriak koordinatu eta antolatu, aportazio teoriko-praktikoak bultzatuz. Beharrezkoa da itxuran bakarrik desberdinak diren arazoak sortzen dituen baterako egitura baten, kapitalistaren, giza kritika sakontzea: klase, arraza, sexu, moral,... desberdintasunak.

F) Botere publikoen aurrean profesional gaitzerako neurri errealistak hartzea eta enplegu integratua sortzeko laguntza tekniko eta finantzieroa errebindikatzea.

G) Gaur egungo gauzen egoera mantendu, erabili eta aprobetxatzen duten instituzio eta erakundeak salatu eta borrokatu.

Azken batetan, LABek ENAM osoa sektore honen errealitateaz jabetzeko balio izan behar du.

### **Zergatiak:**

Bere garrantziarengatik komenigarria iruditzen zaigu kolektibo hau iharduera sindikala hedatzerakoan kontuan edukitzea.

*ONCEko afiliatuak*

## **32. 387. LERROALDEA**

### **Proposamena: gehitu:**

"Lerroaldea amaitzean honela segitzen du: «SAL eta Kooperatibetako langileak, kooperatibismoak autogestioa, elkartasuna, laneran bidez pertsona osatzea, e.a. buruz zeuzkan lehenbiziko ideiak oso urrun utzi dituzten legeek edota berauen praktikak eta helburu bakartzat etekinik handiena lortzen dauden zenbait buruzagi teknokratak hustiraturik daudela egiaztatu bait da.

Eusko Jaurlaritzak, Euskal Herriko desindustrializatzea konpontzeko ideiarik gabe dagoen une honetan, eredu honen aldeko apostu nabarmena egiten du, beronen gatazkortasun eskasa eta kostu txikia direla eta, Langileak bete aldekoak direlarik. Egoera honek beharrezkoago bilakatzen die gizarte ekonomia deritzan honetako bazkide «ekoizle» ei Langile jaiotzea, kooperatibismoak sorterazi dituen kontraesan gogorak gaindituz, kalea eta lanpostuaren arteko banaketa bidegabeari egiten zaien langileria eta herri xehearen bizibaldintzen hobekuntzari buruz ENAMek dauzkan helburuei atxekirik".

*Begoña Campo Lasuen (Bilbo)*  
*(Kooperatibisten taldea)*

## **33. 387. LERROALDETIK 403.raino (3.6. Art.)**

### **Proposamena: 3.6. Art.ri testu hau gehitzea:**

#### **GIZARTE EKONOMIARAKO SINDIKAL INTERBENTZIO POLITIKA BATETARAKO PRESUPUESTOAK**

##### **EZKERRAK EZ DU ASMATU**

Ezkerrak ez du asmatu Gizarte Ekonomiari dagokionean. Aldaketa ekonomiko, sozial eta politiko sakonak gertatu diren garaiean, ezker fidela izan zaio «ortodoxia» eta «gardentasun doktrinarioa»ri, gertatzen ari ziren aldaketa sakonei buruzko beharrezko ondorio teorikoak ateratzeko gai izan gabe. Horren ondorio gaur egungo dibortzio sakona. Honela, baditugu HBko sektoreak kooperatibetan, beren barnean nahiago dutenak LABek (sindikalismo erreibindikatiboarekin identifikatuz) kooperatibetan parte ez hartzea. Baditugu langile sektoreak SAL eta KOOPERATIBETAN, potentzialki ezker abertzalekoak zirenak eta, gaur egungo dibortzioaren ondorioz, pragmatismo erreformistan sartuta daudenak.

##### **BEHAR IDEOLOJIKOA ETA KONTZIENTZIA IDEOLOJIKOA**

Gizarte Ekonomia lauhoiztu egin da krisi honetan, eta bere sakontasunarekiko zuzenki proportzionala da. Zabaltze honek behar ekonomikoaren kontzientzia ideolojikoarekiko garaipena suposatzen du. Langileak bere behar ekonomikoaren ondorioz saltzen du bere «lan indarra», existentziarako baldintza materialek zehaztuta, eta «EZ» bere kontzientzia ideolojikoaren arauera.

Beste era batetara esanda, superbibentzia edozein kontzientzia baino lehenagokoa da. Printzipioaren oinarritzotasunak garbi uzten digu gai honi buruzko gerturatze doktrinario eta idealista eta ez materialista egin duten «ezkerreko sektore»en fenomenoaren ulertzeko gaitasunik eza. Untzi gehiegi utzi ditugu urperatzen, itsaso ulertzeko ibiltzeko berri behar direneko argumentupean. Azkenean, gero eta urrunago igeri egin behar da superbizitzeko eta gehiegi dira itoak. Honengaitik itsasgizonek arraundun baltsak aukeratzen dituzte (autoexplotazioa) itotzetik kanpo geratzeko.

#### JABEGO JURIDIKOA ETA JABEGO ERREALA

Gizarte Ekonomiaren lehenengo ezaugarri nagusia da, «Sociedades Anónimas»eko langileek ez bezala, hemen produkziobideen jabetza dutela. Hala ere, jabetza «juridiko» (formal) bat da, eta ez erreal. Horrengaitik prozesu produktiboen kontrola (jabetza juridikoaz gain) dutenek bakarrik daukate hauen jabetza erreal.

Orain bai, produkziobideen jabetza erreal gutxiengo batek bakarrik duenean, jabetza juridikoa duen gehiengo handia subordinatu eta azpiratua agertzen da.

Honela lehenengoek, botere eta autoritateaz gain, kualifikazioa pilatzen dute eta nahitaezko bilakatzen dira ea, bitartean, bigarrenak deskualifikazioa pilatu beharrean aurkitzen dira (subordinazio eta azpiratze harremanez gain). Prozesu objektibo honetan oinarrituz, lehenengoak abaniko salariale hausten saiaturiko dira (gertatzen ari da), desberdintasun sozialak areagotuz.

#### BAZKIDE LANGILEA

Hau da Gizarte Ekonomiako enpresa batetako bazkidearen funtsezko kategoria. Dualitate hau kontraesanezko errealitate modura agertzen da pertsonen beraien baitan. Beste nolabait esateko: bazkide autogestionarioa langile eta enpresari da denbora berean. Enpresari den neurrian, enpresaren interesei ematen die lehentasuna beste edozereko eta, langile den neurrian, langileria osoaren aldaketa sozio-politiko proiektuari lehentasuna emateko joera du bere enpresa partikularrarekiko.

#### BI BIDEAK:

Dualitate hau bi interbentzio lerro desberdinetan isladatzen da arlo ideologikoan:

Interes enpresarialeko lehentasuna ematen dien lerroari dagozkion ezaugarri nagusiak ondorengoak dira:

- \* Enpresa kooperatibaren demokrazia formala mantendu, honen baitako kontraesan sozio politikoak egotea ukatuz.
- \* Sistemaren garapen eredu inoiz ez zalantzan jartzea, beti posible den bakar eta errealtzat hartuz.
- \* Beti helburu ekonomiko eta ekonomizistak planteiatzea.

Alderantziz, bazkideen langile moduko interesei lehentasuna ematen dien lerroak ondorengoak ditu funtsezko ezaugarritzat:

- \* Enpresa autogestionariaren baitna klase kontraesan sozio politikoak daudela salatzea eta hauek gaintu eta modu berriko demokraziaren alde borrokatu.
- \* Garapen eredu kapitalista zalantzan jarri eta zalantzan jartze hau autogestio langileen funtsezko funtzio hartu.
- \* Helburu sozio politikoak planteiatu, beti ekonomikoak helburu «gizatiar»etarako baldintza eta medio modura hartuz.

Experientzia autogestionario bakoitzaren emaitza izango da hain zuzen ere enpresa autogestionario baten baitan bati dauden bi lerro hauen arteko konfrontazioaren emaitza.

## LANAREN ANTOLAKETA

Hau gai zentral bat da langile autogestionarioek produkziobideen jabetza erreala lortzeko borrokari dagokionean. Gizarte Ekonomiak pionero izan behar du lanaren antolaketa eredu berriak ezartzeko orduan, Taylorkeria, Fordkeria, M.T.M. edo teknologia berriek inposaturiko «partehartzea» bera ere gaituztea bideratuko dutenak. Honek langile hezitu, kualifikatu eta bere aktibitatearen erantzulekide bat sortzea bideratzen du. Ekinbide honek kontrabalantzeatu egiten du, hain zuzen ere, gaur egungo lan merkatuan ikus daitekeen kualifikazioaren polarizaziorako joera kapitalista.

## LURRALDE TASUNA

Kapitalaren internazionalizaziorako eta, ondorioz, lurraldetasunik gabeko (desterritorializatu) langilego bat sortzera jotzen duen gaur egungo mundu joeraren aurka (geurea bezalako nazionalitate txikien desintegrazio inperialistara eramaten duena), gizarte ekonomiak prozesu honen aurkako joera bat planteitzen du, «oinarriak kontrolatutako» eta lurraldetasun zehatz batetan finkatutako garapen bat sortuz.

## OFENTSIBA SOZIO EKONOMIKO BATEN ALDE

Purismo doktrinianoak enpresa errentagarrietako enplegu finkodun langileetara mugatutako ekintza sindikal batetara zuzendu gaituen bitartean (gaur egun langileriako zatirik txikiena), Gizarte Ekonomiren esperientziak superbibentzia «ofentsibo»zko alternatiba bat ordezkatu «dezake» krisiaren aurrean, egoeraren aurrean amore ematen ez duena (SAL direlakoak bereziki) eta administrazio eta gizarteari beren arazoa konpontzeko neurri «ekonomikoak» eta «sozio-politikoak» exijitzen dizkietenak. Iniziatiba sozio-ekonomikoaren arloan ofentsibara pasatze hau erreferentzia gerta daiteke langileriaren deskonposaketa soziologiko prozesu honek eragindako beste sektore batzuetarako (azpiekonomia, langabetuak, emakumeak,...).

## SALen ESPEZIFITATEA

SAL direlakoak dira hain zuzen ere (ezkerraren ikuspuntutik), Gizarte Ekonomiaren sektorerik interesgarriena. Hemen, dagoen maniobra enpresarialerako marjen urriaren ondorioz, garapen eredu zalantzan jarriko duen plangintza sozio-ekonomiko bat exijitzeko beharra argiago dago. SAL direlakoak, hain zuzen ere, ondorengo antzeko neurriak ezartzeko beharra planteiatzen dute: «Langabezia Mantenusaria» orokortzea (autoexplotazioa desagertzearren), gizarte osoari eragiten dioten «partehartzeri buruzko legedia» edo «plangintza ekonomiko» berri bat.

## GARAPEN EREDUA

Jakina da komunitate bakoitza beharren sistema propio bat osatzen duen prozesu historiko bat dela. Beharren sistema honek egoki konpontzeko exijitutako eskaerak planteiatzen ditu inplizituki (honela, autonomien beharrak neurtzeko Estatu Nazionaren erizpide inperialistek ez dute balio, arrazoi garbiak medio, Euskal Herriaren berreskuratze linguistiko eta kulturalaren exijentzia hañdiak kalibratzeko).

Honela, Gizarte Ekonomiak Euskadin garapen eredu honen alde egin behar du, hauek, «negoziaketa prozesu» baten bidez, gure eskubide demokratikoak berreskuratzea posible egingo dutelarik (autodeterminaziorako eskubidea lehenik eta behin) eta gure komunitatean dagoen behar ekonomiko, sozial, politiko, kultural, ekologiko, linguistiko, etab.en sistema egoki konponduko dutenak.

## ONDORIOAK

Gauza litzateke Gizarte Ekonomiaren baitan langilego antolatu, aktibo, kualifikatu, demokrazia industrialaren aldeko borrokan ejertzitate, langileria osoarekiko identifikatu sentitzen den eta gure herriaren subiranotasun eta negoziazioaren aldeko eta langileriaren bizi baldintzen hobekuntzaren aldeko borrokarekiko identifikatua sentitzen den bat sortzea.

Hausnarketa honek, nahitaez, Sindikatuek Gizarte Ekonomian eta batez ere Kooperatibetan parte hartzea aktiboki onartu eta laguntzera eraman behar gaitu.

Zentzu honetan LABek aldaketa honen bultzatzaile izan behar du, bertako militante eta sinpatizatzaileak izan behar dutela kooperatibetan bertan bere lankideei ikustaraziko direnak sindikatuek kooperatibetako bizitza sozialean parte hartzearen beharra eta gure sindikatuaren antolatze beharra, honela sistema kooperatibistak goratzen duen eta bere garaiean kooperatibak (besteren artean = Demokrazia et Kapitala langileen zerbitzuan) sortzea bultzatu zuten justizia sozial ideal eta helburu batzuek mantentzen jarraitzeko, guzti hori burokrata elite bati kontrajarria, lortu nahi duten gauza bakarrik botere kuota handiagoa dutenak eta kontutan duten baremo bakarrak ekonomizista kutsak dituztenak, sartu nahi diguten filosofia ondorengo delarik:

\* Gai Ekonomiko eta Enpresarialak hain dira konplikatuak, elite batengan utzi behar ditugula, hauen erabakiak onartuz.

\* Kolektiboa ez da heldua erabakiak hartzeko. Beraz inposaketa, ez da.

\* Lortu nahi izan behar dugun Demokrazia ondorengo da: Junta Orokorrera urtean behin joatea, ongi prestatutako parte bat entzutera, eta gutxiengoan dauden gainontzekoei aukera ematea erabakiak hartzeko, beti ere eliteari interesatzen zaizkionak izango direlarik.

\* Lortu nahi izan behar dugun partehartzea botere zabaldun demokrazia ordezkaturik da, hau da, bazkideen gehiengoaren nahiaren aurka ere erabaki ahal izango dutena.

Mugimendu Kooperatibista guztian dagoen desbideraketa hau da PARTEHARTZE SINDIKAL bat egitera bultzatu behar gaituena, kooperatiba mundua denarekin bat eta duen garrantziaren eta datozen aldaketen ondorioz, diseinatzen hasteak presa duena.

### **Zergatiak:**

ENMENDAKIN hau aurkeztera naramaten arrazoiak ondorengoetan oinarritzen dira:

\* Lanak Iharduera Sindikalak Gizarte Ekonomiara Hedatzea deskriptiboki aurkezten du.

\* Gizarte Ekonomiaren hazkunde posiblea, krisi egoera baten aurrean, Enpresak istearekiko irtenbide ez hain txar modura.

\* Berriz ere Kooperatiben gaia ez da sakonki aztertzen. Nik nahi dudana da zentral sindikalak Kooperatibetan parte hartzeari buruzko Sindikatuaren pronuntziamentu argi bat, honelako erabaki batek suposatzen duen guztiarekin.

\* Kooperatibetako langileen baitan eztabaida bat eragin nahi dut, sindikatuek kooperatibetan parte hartu bai edo ezari buruzkoa, interbentzio sindikalerako estrategia bat diseinatu aurreko urrats modura, uste bait dut 402 ataleko edukia aurrera eraman aurretik beharrezkoa dela Biltzarre honetan erabakitzea sindikatuaren partehartzearen alde jokatzeko dugun edo orain arte bezala jarraitzen dugun, erabaki beharrezko interbentzio lerroak desberdinak izango bait dira sindikatuaren interbentzioaren alde jokatu edo gure afiliatu eta militanteen interbentzioaren alde jokatu, kooperatibek sortutako esturketan bertan, baina sindikatuek sindikatu modura parte hartu gabe.

\* Enmendakinarekin epe laburrera Gizarte Ekonomian eta, bereziki, Kooperatibatan Interbentzio Sindikal Estrategia bat deiseinatzen eramango gaituzten oinarriak sortzen saiatu naiz.

Enmendakin hau ez dut textuaren edukiarekiko lan alternatibo modura aurkezten, baizik eta lanaren edukiarekiko ekarpen modura, uste bait dut osagarria izan daitekeela eta Gizarte Ekonomiaren lan deskriptiboari Enmendakin hau gehi dakiokela, GIZARTE EKONOMIARAKO SINDIKAL INTERBENTZIO POLITIKA BATETARAKO PRESUPUESTOAK izena jarritz.

"TATEL"

(Deba Garaia)

### **34. 388. LERROALDEA**

**Proposamena: lerroalde osoa ezabatzea.**

*Begoña Campo Lasuen (Bilbo)*

(Kooperatibisten taldea)

### **35. 393. LERROALDEA**

**Proposamena: gehitu:**

"«... bizitza sozialaren arlo guztiak barnean hartzen ditu» esaldiaren ondoren «Gaur egun izpiritu kooperatibistarik dagoelako segadan erortza Kapital Haundiak gero eta areago loditzen segi dezan lagunkide izatea da, Langileen eta berauen bizibaldintzen, lanekoen, e.a.en kaltetan». Erantsi. Ondokoa aldatzeke geratuko litzateke eta amaieran, honako gehitu «gai dugun kooperatibismo hori, bere izaera eta helburuei dagokienez, gaur egun ezagutzen dugun eta, hain zuzen ere, marko berri horren barruan dagoenaren arabat aurkakoa litzatekeela ondo ulerturik»".

*Begoña Campo Lasuen (Bilbo)*

(Kooperatibisten taldea)

### **36. 394. LERROALDEA**

**Proposamena: ezabatzea eta gehitzea:**

"Europar Akta Bakarra abioan jartzea... «honen ondoko guztia kendu eta honakoa erantsi» da Kooperatiba-Biltzarre berrie eta beronek ekarriko duen Kooperatibei buruzko Legearen eraldaketarekin batera, Taldeko buruzagiek ordezkagarritasun baremoak aldarazteko erabiltzen ari dima, 91ko abenduan Taldea Empresal Korporazio bihurtzea, emandako lehenengo urratsa izanik»".

*Begoña Campo Lasuen (Bilbo)*

(Kooperatibisten taldea)

### **37. 395. LERROALDEA**

**Proposamena: aldatzea:**

"«... hiru omendira» kendu eta «hiru dira» jarri.

*Begoña Campo Lasuen (Bilbo)*

(Kooperatibisten taldea)

### 38. 398. LERROALDEA

#### **Proposamena: aldatzea eta gehitzea:**

"«... botu delegatua abioan dutelakoan...» ondoko honek ordezturik geratzen da: «... botu delegatuaren igoera handia izango delakoan...». Lerroladearen amaieran honako hau erantsi «Aldaketa hau ez da berria, ordea, kategoria, aparteko orduak, kapitalen tratamendua, kontrataziak, eta beste hainbat gairi buruzko kooperatiba-legerien tratamendua eta, halaber, berauek abioan jartzea, merezi duen erantzunik ezean, Kooperatibetako langileen gainustiraketari laguntzen ari bait zaizkio historikoki»".

*Begoña Campo Lasuen (Bilbo)*

*(Kooperatibisten taldea)*

### 39. 400. LERROALDEA

#### **Proposamena: gehitzea:**

"Amaiera ondoko hau erantsi «ezinbestekoa da sindikalismo askea erabiltzeko eskubidea ezartzea, eskubide hori bait da agertzen orain kooperatiba munduan. Beharizan hori gaur egun premiazkoa delarik ere, larriagoa izango da epe laburrean, azken Kooperatiba Biltzarrearen ondorioez»".

*Begoña Campo Lasuen (Bilbo)*

*(Kooperatibisten taldea)*

### 40. 401. LERROALDEA

#### **Proposamena: ezabatzea:**

"«eta honen betiko ukoa...» honetatik amaieraraino".

*Begoña Campo Lasuen (Bilbo)*

*(Kooperatibisten taldea)*

### 41. 403. LERROALDEA

#### **Proposamena: aldatzea:**

"Lehenengo lerroaren amaieran «litzateke agian» kendu eta «da» jarri; eta seigarren lerroan «litzateke»ren ordez «da» jarri.

*Begoña Campo Lasuen (Bilbo)*

*(Kooperatibisten taldea)*

### 42. 404. LERROALDEtik 415.raino (3.7. Art.)

#### **Proposamena: atalari testu hau gehitzea:**

"92. urtean Europako Erakundeak Lan Segurantzza eta Osasunaren protekzioa nabarmendu nahi duten urtean, gu baldintza txarrarretan sartu gara.

Gaur egun, aurre jakiten dira enpresa eta lanpostu bakoitzean osasuna galtzera daramaten arrazoiak. Segurantza eta Osasun orokorrean ezak, azalerazten dute zama hau konpontzeko borondate politikoaren falta. Kaltea langileok jasan eta ordaindu behar dugu geure osasunarekin, hau da geure biziarekin.

Istripu eta lan gaixotasunen arrazoirik garrantzitsuena norbanakoen utzikerian dagoela esatea sinplista da guretzat. Oinarrizko arrazoiak makina lana, instalazioak eta lan materiala produkzioarako bakarrik egokitua egotean dago, segurtasun eta protekzioarako gutxienezko elementuak ere betetzen ez direlarik, ezta beharrezkoak direnak ere.

Frogatua dago presak, stressa, aldikako lana, lan prekarioa eta azpi ekonomia, zeinak gero eta gorago dauden istripuak eta osasun galtzeak gehitzen dituzten baldintzak direla.

Beraz, etorkizunean egoera, hobetu beharrean txartzeko oinarriak jartzen ari direla baieztatu behar dugu. Eta guzti hau arrazoi ekonomiko soilengatik da.

Lan istripuak etorkizunean osasunaren desoreka ekarriko duten elementu guztien parte txiki bat besterik ez dira. Elementu guzti hauek, hau da postura txarrak, esfortzuak, ingurugiro eta lan baldintzak ondorio latzak ekarriko dituzte langile eta bere inguruaren gain, eta baita ere giza erresponsabilitate eta kosto ekonomikoak dagokionean.

Produktzio sistema eta makina pertsonari egokitu beharrean, pertsona makina eta enpresaren beharrei egokitzeko baldintza guztiak ematen dira. Enpresak berriz, produktzio erritmoak haundituz doaz eta aldi berean, noski, enpresarioen irabazi ekonomikoak.

Osasuna orokorra da edo ez da osasuna."

### **Zergatiak:**

Hiru Ponentziak irakurri ondoren nahiko pobrea eta hobegarria iruditzen zait gaiarekin zer ikusia duena.

*Arantxa Sanchez Larrarte*  
(Irun-Hondarribi)

# **“ANTOLAKUNTZA” PONENTZIARI EMENDAKINAK**

## **1. ARTIKULU BERRIA**

**Proposamena: Antolakuntza Ponentziaren barnean sindikatuaren karakterizazioa sartzea, ondorengo testua proposatuz:**

- 1.- IZAERA SOZIO-POLITIKOA**
- 2.- ERAKUNDE ABERTZALEA**
- 3.- KASeko PARTAIDEA**
- 4.- GIZARTEAREN ERALDATZAILEA**
- 5.- ERAKUNDE DEMOKRATIKOA**
- 6.- ANTOLAKUNTZ TRESNA BILTZAILEA**
- 7.- SINDIKATU INTERNAZIONALISTA**

### **1.- IZAERA SOZIO-POLITIKOA**

Gure sindikatuaren lehenengo eta funtsezko ihardun-gunea lantokia da. Berton langileen bizibaldintzak hobetzearen alde ihardun behar dugu (komenioak, bizi-kalitatea, lan-osasuna, e.a.)

Kasurik gehienetan zure ekinbide zuzenak aurrez aurre egiten du topo ezarritako legeen mugekin. Ez dugu ahaztu behar gaur egungo sistema kapitalistan lege hauek enpresarien interesak babesteko eginkizuna daukatela.

Sindikatu sozio-politikoaren gure definizioak bi hitzez zehazten du gure ihardunbidea. Sarritan arlo sindikalean hertsiki burukatzen badugu ere, beste askotan gure burruka langileriaren interesen aurka burututako zenbait legeren kontra zuzentzen da (Gizarte Segurantzaren Eraldaketa, Pentsio Fondoak, Langileen Estatutua,...).

### **2.- ERAKUNDE ABERTZALEA**

1978ko konstituziotik eratorritako egungo egoera juridikoan Euskal Herriari, nazio-errealitate bereiztua daukan elkarte, bere etorkizunari buruz erabakitzeko eskubidea, Autodeterminazio eskubidea alegia, ukatzen zaio.

Ukapen hau ordenamendu juridiko espainiar eta frantziarraren kontraesan larria da, bi estatuok sinatutako nazioarteko hainbat xedapenetan (UNOren Fundazio Gutuna, Herrien eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsala,...) ezartzen bait da Autodeterminazio Eskubidea, Euskal Herriari aitzitik onesten ez diotelarik.

Autodeterminazio Eskubidea lortutakoan eta abioan jarri artean, aurreranzko egitamu ezberdinak burutuko dira, baina LABek Euskal Herri independentea lortzearen aldeko apostua egiten du.

Gure herriak bizirik iraun dezan, gure inguruko herriekiko berdintasunezko harremanak edukitzea, hots, subirano izatea da berme bakarra.

### **3.- LAB, KASeko PARTAIDEA**

KAS blokeko erakunde partaidea den aldetik, LABek dinamizatze politikorako esparru honi ELMan eskuhartzeak dakartzkion esperientzia eta gogoetak eskaintzen segituko du, bai eta, jakina, Blokeko egitura kideek ekin beharreko azterketa politiko globalaren funtsezko aspektuetan partaide izaten ere. Gure eritziz, oraingo fase politikoan indar osoa hartzen dute KASen sorrera bultzatu zuten kari eta motibazioek baina, hala ere, berregokitu beharra ere azpimarratu behar da, akatsak gainditu eta eraginkorki iharduteko ahalmena garatzeko xedez.

### **4.- LAB, Gizartea Eraldatzeko SINDIKATUA**

Gaur egun sozialismoa eraikitzen aurrera egiterakoan inolako eredurik ez daukagun arren, geure burua kalse sindikatutzat jotzen segitzen dugu. Ez diogu ukorik egiten hustirakuntzarik gabeko bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko geure helburu historikoari.

Langileak Euskal Herri sozialista lortzeko aldaketa sozial eta politikoak eragingo dituen subjektu aktibo bihur daitezen kontzientzia sortzea da LABen funtsezko zeregina.

Atal honi dagokionez, pertsona guztien arteko berdintasun osoaren aldeko kontzientzia eta definizioa behar-beharrezkoak dira. Bereziki azpimarratu behar ditugu emakumeok pairatzen ditugun hurrupakuntza bikoitza, bereizkeria, umiliazioa,... Baina gure eginbeharra ez da unean uneko adierazpen hutsa izan behar, urtearen gainerakoan ahaztuz. Aspaldian hartu behar izan genituen barne nahiz kanpoko geure harremanetan erabili ohi den gizonkeriazko hizkera ekiditeko neurri gorrrak.

Ez da, ordea, hizkera arazoa, ideologikoa baizik, lengoiaia pentsamenduaren islada hutsa besterik ez bait da.

### **5.- ERAKUNDE DEMOKRATIKOA**

Kapitalismo eta estatu espainiarraren aurkako aginkeriazko ezein burrukak ezin izango du Euskal Herri independente, sozialista eta demokratikoa lortu.

LABen, afiliatu eta langileen partehartzeak segituko du barne zein kanpo-ihardunbidearen ardatz izaten, sindikatuaren barne-demokrazia indartu eta Langileriaren nagusitasuna sustatzeko funtsezko bidea bait da.

Gehegizko burokrazia, aparatuak, e.a.eranzko joerak baztertu egin behar dira, bai barne-ikuspegiari bai eskuhartzeari dagokionez, maila honetako inertziarik sor dadin ekidinez, erabat alderantzizkoak diren baloreak sorterazi behar dituen LAB erakundearen garapenean, minbiziaren eragina eduki bait dezakete aipatu joerek.

Langileen asanblada, ordezkaritza organo baterakoiak sustatzeak, hots, ukitzen dituen arazo guztietan langilea parte hartzera bultzatzeak helburu iraunkorra izan behar du.

Partehartze eta barne-bizitasunezko erizpide beronek (informazioa, azterketa, ihardunbideak,...) egituren funtsezko ezaugarria izan behar du maila guztietan, lantoki bakoitzeko sailatal sindikaletik sindikatuaren organo goreneraino.

### **6.- ANTOLAKUNTZ TRESNA BILTZAILEA**

Alde batera utzi behar ditugu "nirekin ala nire aurka" lema zentzugabeen oinarritutako ihardunbide zaharrak. Gizarte berri bat eraiki nahi badugu gero eta pertsona gehiago bildu behar dugu geure alboan, baita gaur egun hurbilak ere ez diren sektoreak ere.

Ezein manu ideologikorik baztertu gabe, ukorik egiteke, are jarrera irekiagoa eduki behar dugu. Elkarrizketaren aldeko jarrera erakutsi behar dugu beti, era errazean mintzatuz, dogmatismorik gabe eta geure herriaren hizkeraz.

Sarritan, guk geuk soilik ulertzeko eran mintzatzen gara (panfletoak, hitzaldiak, asanbladak,...).

Gure sindikatuan sartu ahal izateko muga ideologiko bakarra dagokigun lantokian garatzen dugun ihardunbidearekin bat etortzeak izan behar du soilik.

Gure ihardunbidea dela-eta hurbiltzen zaizkigun pertsonak, hasiera batetan gure ideologia ezagutzen edo berarekin bat egiten ez badute ere, erabat ados egongo dira azkenean eztabaida zuzpertz, beharrezko azalpenak eman eta guztien partehartze eta ekarpenak kontutan hartuz iharduten baldin badugu.

Bizitza politikoa erabat endakaturik dagoelarik, eskandalu eta ustelkeriek inguraturik, onestasan eta zintzotasun politikoaren eredu izan behar dugu.

## **7.- SINDIKATU INTERNAZIONALISTA**

Herri zapaldu eta hurrupatua garen aldetik, lar ondo dakigu askapenerako burrukak diren zail eta gogorrak. Honexegatik eusten diogu, etorkizunean hustirakuntzarik gabe, ezberdinak diren baina eskubide berberak dauzkaten pertsonen osaturiko mundua lortzen munduko herri guztiei laguntzeko konpromezu tinkoari.

Erabateko begirunea diegu errealitate ezberdinei, antolakuntz eredu ezberdinei, prozesu bakoitzaren ezaugarri ezberdinei, baina ez diogu uko egiten esperientziak eta eritziak elkartrukatzeari.

Konpromezu internazionalista hau sindikatuarena ezezik, berau osatzen duten pertsona guzti-guztiena ere bada eta gainontzeko herrien egoera ezagutu eta laguntzeko benetako ahalegina ekarriko du beti.

### **Zergatiak:**

Komenigarria iruditzen zaigu Ponentzian sindikatuaren karakterizazioa agertzea.

*Damian Agirremota  
(Bilboko Udaletxea)*

## **2. 150. LERROALDEA**

### **Proposamena: lerroaldearen bukaeran ondorengoa gehitzea:**

"Gure lanean kontuan eduki behar dugun beste arazo garrantzitsua multinazionalen gaia da. Hauen garrantziak, gure sare industrialean gero eta sendotuagoak baitgaude, behartzen gaitu beste nazioetan multinazional berarentzat lan egiten duten langileekin harremanak edukitzera.

Harreman hauek langileen solidaritaterako aurreapausoa izan behar dute eta elkar ezagutzeko eta askatasuna lortu nahi duten herriei laguntza emateko bidea ere bai".

### **Zergatiak:**

*Patxi Erdozain Beroiz  
(Iruñea)*

### 3. 162. LERROALDEA

#### **Proposamena: Batasun Sindikalen taula edo zerrendaren zuzenketa:**

Honako hauek dagokien lekuan sartzea (erderazko orden alfabetikoaren arabera)

Merkataritza		2	1	2	2	-	-
Arrain-Kontserbagintza	-	1	1	-	-	-	
Irakakskuntza Publikoa	-	-	-	-	-	1	
Komunikabideak	2	2	2	2	-	-	
Papergintza		-	-	-	-	-	1
Hiri-garraioak	-	-	-	-	-	2	
Unibertsitatea	-	-	-	1	1	-	

#### **Zergatiak:**

Inprenta-akatsak zuzentzeko, kokapen egokiago bat lortzeko...

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

### 4. 171. LERROALDEA

#### **Proposamena: azpisektoreen taula edo zerrendaren zuzenketa.**

\* Honako hauek dagokien lekuan sartzea (erderazko orden alfabetikoaren arabera)

Toki eta Foru Administrazioa	1
Arrain-kontserbagintza	2

\* Eta beste hauek kentzea

Irakaskuntza Publikoa  
AZP (PAS)

#### **Zergatiak:**

Inprenta akatsak zuzentzeko, kokapen egokiago bat lortzeko.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

### 5. 177. LERROALDEA

#### **Proposamena: dagokien lekuan honako hau sartzea (erderazko orden alfabetikoaren arabera)**

Entitate Finantzieroak 2

#### **Zergatiak:**

Inprenta akatsak zuzentzeko, kokapen egokiago bat lortzeko...

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 6. 193. LERROALDEA

### **Proposamena: *lerroaldearen ostean berri bat sartzea:***

Ekintza Erreibindikatiborako organuen (Tokiko Batzordea, Eskualdeko Batzordea, Herrialdeko Batzordea eta Batzorde Nazionala) eginkizuna izango da interbentzio guneetako (sekzio sindikalak, sektoreak,...) praktika sindikala eta gune horietako bakoitzaren baitako eta bakoitzaren besteengano/besteengandiko kritika/autokritikaren arteko etengabeko kontrastea lortzeko beharko diren mekanismo eta antolaketa mailako neurriak sustatzea. Gure helburua ez da interbentzio uniforme bat edo interbentzio gune bakoitzak behar duen autonomia murriztea, baina guri dagokigun papera jokatu ahal izateko ezinbestekoak dira, batetik, homogeneizazioa eta LAB bezala identifikatzen gaituzten adierazle guztiak bultzatzea eta, bestetik, kolektibo gisa dugun identitatea deuseztatzen edo desitxuratzen duen guztiari kontra egitea.

### **Zergatiak:**

Ekintza Erreibindikatiborako organuek (Tokiko Idazkaritza, Herrialdeko Batzordea eta Batzorde Nazionala) behar adinako gaitasuna izango dute interbentzio sindikala garatu eta sakontzearen alde antolaketa mailan hartu beharko den edozein neurri hartu ahal izateko. Hau da, interbentziorako mekanismo konkrituak ezartzeko orduan beste egiturek (Ekintza Sindakala, Aparatuak, Lan Arloak,...) Ekintza Erreibindikatiborako egituretako organuek erabakitako jarraipide eta mekanismoak onartuko ditugu.

Adibidez, negozioazio kolektiboaren jarraipena eta balorazioa egiteko orduan, enpresan, sektorean edo nonnahi negozioazioaren erantzunkizun zuzen duten/dugun pertsonak, interbentzio gune guztien arteko kontraste eta koordinazio etengabeko bat beharko dute/dugu ikuspegi orokor bat eta LAB-en, bere osoan, ematen duen ausnarketa bere/gerureganatzeko. Horrela izanik pertsona bakoitza, negozioazioan dagokion erantzunkizun mailari begira, hobetao kokatuta egongo da, negozioazio kolektiboaren dinamika osoaren jabe izango da, berak ordezkatzeko dituenen jarrera kritika/autokritika prozesu batetan jarriko du beste ordezkari guztien jarreraren aurrean, e.a.

LAB ez da "sindikatuaren sindikatu bat" (sekzio sindikalena, sektoreena, aparatuena,...), ez da koordinazio-leku huts bat, ez da ere bakoitza bere aldetik gai ez izanik bitarteko batzuk (aholkularitza, propaganda,...) amankomunean erabiltzeko leku bat. Gure helburua sekzio sindikal bakoitzaren, sektore bakoitzaren interbentzio sindikal autonomo bat lortzea da, baina gainerako interbentzio sindikalekin kontrastatutako interbentzio sindikala, beti ere momentuan-momentuko baldintzen uzten duten homogeneitatearik –eta ez uniformitatearik– handienera iristeko.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 7. 220. LERROALDEA

### **Proposamena: *osaketa aldatzea.***

Iraunkorrak Ondorengo Arduren osaketa Minimoa edukiko du:

EE/EIrako Herrialdeko Arduraduna

Negoiazio Kolektiborako Herrialdeko Arduraduna

I.T. Juridikorako Herrialdeko Arduraduna

I.T. Ekonomikorako Herrialdeko Arduraduna

Gehienez 6 kidez osatua egongo da, Ekintza erreibindikati borako Herrialdeko Batzordeko (EEHB) kideen artean aukeratuko direnak.

Honen funtzioak izango dira EEHBren Erabakiak ejekutatzea, lan eta eztabaidak dinamizatu, eguneko gaiak aztertu, bideratu, ..., azken batetan herrialdean EEko motore izan, EEHBaren funtzionamendu zuzenaren inguruan bideratuko dena.

### **Zergatiak:**

Planteiatzen den iraunkorra uste dut ez dela operatiboa, Herrialdeen arauera, bere konposaketa gehiegizkoa dela iruditzen bait zait zenbait Herrialdeetan, Gipuzkoako Herrialdeko EEHI adibidez. Planteiatzen den proposamenarekin 14 kidez egongo litzateke osatua (10 eskualde, EE/Elrako herrialdeko arduraduna, Negoziazio Kolektiborako Herrialdeko arduraduna, Idazkaritza Tekniko Juridikorako Herrialdeko arduraduna eta Idazkaritza Tekniko Ekonomikorako Herrialdeko arduraduna), hau da, gaur egun EEHM osatuko luketen 19 pertsonetatik (kontutan izan gaur egun herrialde izaerako BBSS eta SSsetako arduradun lirakeela = Osakidetza, Irakaskuntza eta Administrazioa) 14k EEHIko partaide izango lirakeela.

*"TATEL"*

*(Deba Garaia)*

## **8. 220. eta 334. LERROALDEAK**

### **Proposamena: ezabatzea.**

Ekintza Erreibindikati borako Herrialdeko Iraunkorra desagertaraztea (220. lerroalde osoa) eta Idazkaritza Tekniko Juridikoaren eta Ekonomikoaren Herrialdeko arduradunak Herrialdeko Idazkaritzen Iraunkorretako kide izango dira.

Aurrekoaren ondorioz, Ekintza Erreibindikati borako Herrialdeko Iraunkorraz dagoen aipamen oro kendu eta honen ordez Herrialdeko Idazkaritzaren Iraunkorra jartzea.

### **Zergatiak:**

Ponentzian ageri denez Iraunkor bien osaketa ia berbera da (hauxe dute diferentzia bakarra: E.E.rako Iraunkorrean ez daude Herrialdeko Idazkaria ez eta Barne Antolaketarako arduradunak, hala nola H.I.ko Iraunkorrean ez daude II.TT. Ekonomiko eta Juridikoetako arduradunak).

Aurrekotik hainbat ondorio sortzen dira, denak batera kontutan hartzekoak eta bi organuok bakarrean batzea justifikatzen dutenak:

– Organu bakoitzaren funtzionalitatea osakide dituen arduradunen araberakoa izango da, eta kasu honetan bi organuon (H.I.I. eta E.E.H.I.) osaketak hain dira antzekoak non ponentzian aipaturiko bi organuen funtzionalitateak bakar batek beregana bait ditzake, eta hori H.I.I. izango da.

– Ponentzian agertzen diren bi organu horien dinamika asterokoa edo ia izan beharko da ezinbestez. Hori horrela izatera, aipaturiko bi iraunkor horien osakide guztiek, bik ezik, bilera gehiegi izango litzukete (astero bi seguruenik) dagozkien ardurak behar bezela betetzeko eta organuen beraien funtzionamendurako kaltegarri beti ere.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
*(Ponentzi-Batzorde)*

## 9. 221. LERROALDEA

### **Proposamena: *lerroaldea ondorengo testuz osatzea:***

Ekintza Erreibindikatorako Batzorde Nazionala (EEBN) izango da Nazional mailan Sindikatuaren E.E.ri dagokion guztia eztabaidatzeko organua eta bere konpetentzia diren gai guztiei buruzko lan eta proposamenak egingo dituztenak, ondoren sindikatuko esturkturretan eta Idazkaritza Nazionalan aurkeztuz onartua izan dadin. E.E.ko benetako motore izan behar du eta, bere konposaketaren ondorioz, aurkezten den arazo bakoitzari erantzuna emateko gai, marko honi koordinaziorako lan hutsa emateko deformazioan erori gabe.

### **Zergatiak:**

Ez nago ados atal horretan baieztatzen denarekin. Nire ustez Ekintza Erreibindikatorako Batzorde Nazionalak ez du koordinaziorako batzorde bakarrik izan behar, baizik eta baita ere Sindikatuak Nazional mailan EE arloan duen guztiari buruzko lanak egineta eztabaidatzeko benetako organu, lanak egiteko ardura izango duena eta, dagozkion esturkturretan dagokion Eztabaidaren ondoren, Idazkaritza Nazionalera aurkeztuko dituelarik honek onar ditzan.

"TATEL"

(Deba Garaia)

## 10. 223. LERROALDEA

### **Proposamena: *osaketa aldatzea honela geldituz:***

MAILA HONETAKO ARDURA ZEHATZAK:

- \* E.E.rako Arduradun Nazionala.
- \* Negoziazio Kolektiborako Arduradun Nazionala.
- \* Gatazketarako Arduradun Nazionala.

### **Zergatiak:**

Ez dut ulertzen arlo honetako ardura espezifikoetan ADMINISTRAZIO PUBLIKORAKO ARDURADUN NAZIONALA sartzean, eta ez Osakidetzakoa, Irakaskuntzakoa,... Uste dut arlo honetako ardura espezifikoak Sindikatuaren ekintza sindikalarekin lotutako denak direla, sektore batetakoak edo bestekoak.

"TATEL"

(Deba Garaia)

## 11. 225. LERROALDEA

### **Proposamena: *osaketa aldatzea honela geldituz:***

EKINTZA ERREIBINDIKATIBORAKO BATZORDE NAZIONALA

Ekintza Erreibindikatorako Arduradun Nazionala

Negoziazio Kolektiborako Arduradun Nazionala

Gatazketarako Arduradun Nazionala

Nazional Mailako BB.SS.en Arduradunak  
Nazional Mailako Azpisektoreen Arduradunak  
Herrialdeko EE/Elrako Arduradunak  
Idazkaritza Tekniko Juridikorako eta Elrako Arduradun Nazionala  
Idazkaritza Tekniko Ekonomikorako Arduradun Nazionala  
Emakume eta Gazteria Arlorako Arduradun Nazionala  
Lanbide Heziketarako Arduradun Nazionala  
Laneango Osasunerako Aholkularitzaren Arduradun Nazionala  
LAZrako Aholkularitzaren Arduradun Nazionala

### **Zergatiak:**

ADMINISTRAZIO PUBLIKORAKO ARDURADUN NAZIONALA kentzea planteiatzen dut, uste bait dut baduela bere ordezkaritza izaera nazionaleko BB.SS.en bidez.

Planteiatzen dut arduradun bakar batetan batzea Idazkaritza Tekniko Juridiko eta Ekintza Instituzionalerako Arduraduna, uste bait dut biak konpatible izan daitezkeela gaur egun (eta honela jarraitu bide du) Ekintza Instituzionalerako estamentuetako gure Ordezkaritza (partehartzea ordezkaritzaren %15a duen sindikatuentzat bakarrik ezartzen denez) Lan Harremanetarako Kontseiluan eta ezer gutxi gehiagotan ematen bait da.

Gaur egun partaidetza ukatzen diguten organuetan parte hartu ahal izateko benetako aukera ematen badigute, hala nola Osalan, INSS, ISM, INEM, FOGASA, etab., orduan sortuko nuke Ekintza Instituzionalerako Arduradun Nazionalaren figura.

Ekidin behar duguna da jende kualifikatua, gure partaidetzaren ondorioz 2. mailakoak diren lanetara eramatea.

Era berean, Emakumearen eta Gaztediaren ardurak ardura bakar batetan biltzea planteiatzen dut, uste bait dut bi, bi sektoreetako arazoa handia izan arren, ardura bakar batek bete dezakeela.

"TATEL"

(Deba Garaia)

## **12. 226. LERROALDEA**

### **Proposamena: osaketa aldatzea honela geldituz:**

EKINTZA ERREIBINDIKATIBORAKO IRAUNKOR NAZIONALA

Ekintza ErreibindikatiBORAKO Arduradun Nazionala  
Negoziazio KolektibORAKO Arduradun Nazionala  
Gatazketarako Arduradun Nazionala  
Idazkaritza Tekniko Juridikorako eta Elrako Arduradun Nazionala  
Idazkaritza Tekniko Ekonomikorako Arduradun Nazionala  
Ekintza erreibindikatiBORAKO Herrialdeko Arduradunak

### **Zergatiak:**

Ekintza Erreibindikatiborako Iraunkor Nazionalerako ordezkari berria planteiatzen dut, bertan EEHak sartuz, uste bait dut funtsezkoa dela Herrialdeetako EErako arduradunak EEInean parte hartzea, hauek erabat ezagutzen bait dute Herrialde bakoitzeko errealitatea eta, era berean, honen konposaketa ez bait da handia organu honek duen garrantzirako = 9 pertsona.

Era berean, Administrazio Publikorako Arduradun Nazionala kentzea planteiatzen dut, gainontze-koak ez badaude (Osakidetza eta Irakaskuntza) ez bait dut ulertzen zergatik bai Administrazio Publi-koa.

Baita ere planteiatzen dut Idazkaritza Tekniko Juridikorako eta Ekintza Instituzionalerako Ardurak bateratzea eta Iraunkorrean parte hartzea, Idazkaritza Tekniko Juridiko eta Ekintza Instituzionalerako arduradun Nazionala izenpean.

"TATEL"

(Deba Garaia)

## **13. 240. LERROALDEA**

### **Proposamena: *textuaren edukiari ondorengo esaldia gehitzea:***

"Bere funtsezko funtzio eta lanetariko bat izanik Autofinantziaketarako beste kanpo bide eta me-kanismoak bilatzea, hau izango delarik Diruzantza aparatuak asumitu eta garatu beharreko desafio hendietariko bat."

### **azken testua honela geratuko litzateke:**

Diru sarrerak/gastuak, erakundearen jabegoa,... gestionatuko ditu, bere funtsezko funtzio eta lane- tariko bat izanik Autofinantziaketarako beste kanpo bide eta mekanismoak bilatzea, hau izango dela- rik Diruzantza aparatuak asumitu eta garatu beharreko desafio handietariko bat.

### **Zergatiak:**

Nire ustez ez du garbi kokatzen Diruzantza aparatua. Bere lanak ez du bakarrik izan behar kuotak jaso eta Sindikatuaren kontabilitatea eramateko lan mekanikoa bakarrik, baizik eta Sindikatuaren Finantziaketarako beste bide batzu bilatzera zuzendua izan behar du batipat.


"TATEL"

(Deba Garaia)

## **14. 240. LERROALDEtik 247.raino (4.4.1.2. atala)**

### **Proposamena: 4.4.1.2. atal osoa aldatzea ondorengo testua sartuz:**

"Diruzantza" aparatuaren estruktura honela planteiatua egongo litzateke:



Gestio Arduradunak eta Proiektu Arduradunak dagokien herrialdeko estroktoretan parte hartuko dute, baina ez Idazkaritza Nazionalan.

Herrialde mailan ez da egongo diruzantza arduradunik, ez bait dago area lan berezirik eta, bestalde, herrialdeko antolaketa arduradunak "antolaketa garapenerako" lan orokorrak hartuko ditu.

Eskualde mailan "diruzantza" edo proiektu arduradun bat egongo da, antolaketa arduradunarekiko osagarri modura, aparatutik zabaltzen diren funtzio eta dinamika berrien arauera bilakatua. Hau da, ia erabat garatutako gestioaren zentralizazio prozesuaren bidez, "diruzantza" ardurak afiliazioaren garapenera eta hurrengo urteetarako bideratzen diren finantziaketa proiektuak bultzatzera zuzendua izan behar du.

### **Zergatiak:**

Aurkezten dudan enmendakina Idazkaritza Nazionalaren osaketari buruzkoa da eta, zehazki, Diruzantza aparatuari buruzkoa.

Ponentzian bi ardura "finko" edota berezko eratzten dira "antolakuntza" eta "diruzantza" rako, lurralde estroktura guztietan presentzia dutenak, Idazkaritza Nazionala barne.

Ponentziaren arauera, aparatu bakoitzak estroktura bertikal bat izango luke eta, Diruzantza Aparatuaren kasuan, ardura desberdinetan banatua egongo litzateke nazional mailan, arduradun nazionalaren dinamizaziopean egongo litzatekeen "staff" batetan.

Printzipioz uste dut planteamenduak balio duela, baina ikusten dut Antolaketa arearen eta Diruzantza arearen beraren ardura "errealak" aztertuz gero, estroktura desberdin bat osa liteke, FUNTZIO-NAMENDU PRAKTIKOA OPERATIBIZATUZ.

### **Azalpena:**

Proposamen hau ulertzeko beharrezkoa da antolaketa arduradunaren eta "herrialdeko koordinatzaile" deituaren lanak bideratzea. Uste dut "Herrialdeko Koordinatzailea" lurralde esparru horretako arduradun politiko-sindikal bilakatu ondoren, Antolaketa Arduradunak "ANTOLAKETA GARA-PENA" deituko genukeenean zentratu beharko lukeela bere lana.

Lan horren barne egongo lirateke:

- Eskualde eta herri guztietan estrokturak garatu eta hobetzea.
- "Antolaketa garapen" helburu horren barruan, azpiegitura eta beste inbertsio batzutarako beharra aztertu.
- Erakundearen aurrerakadarako mekanismoak ezarri: afiliazioa...

Zentzu honetan, eta ardura eskema honekin, ANTOLAKETA ARDURADUN NAZIONALA DA ETA IZANGO DA inbertsio, behar,... planak aztertu eta aurkeztu behar dituen, DIRUZANTZA APARATUAREKIKO ERABATEKO HARREMANA izango duena. Honengaitik uste dut "antolaketa" eta "diruzantza" ardurak "horizontalitate" plano batetan kokatzeak bi areen elkarrerlazio mekanikaren BUKRATIZAZIO handiago bat eta inoperatibitate arriskuak ere sor ditzakeela. Honengaitik da nire apos-tua "diruzantza" area bere lan Staffeko zati duen antolaketa Ardura baten aldekoa; hau da, Komunikazio Arean Prentsa eta Propaganda aparatuekiko planteiatzen den eskema berdina edo antzekoa.

Ardura eskema hau herrialde eta eskualde mailatan ere garatua izango litzateke, hauetan egongo litzatekeelarik Antolaketa arduraduna, emandako funtzioekin, baina ez Diruzantza arduraduna. Eskualde mailan, batipat finantziaketa "proiektu"ei lotua eta Antolaketa Arduradunarekiko osagarri modura, "diruzantza" arduradun bat definituko litzateke.

Rafa Diez Usabiaga  
(Hemani-Lasarte)

## 15. 241. LERROALDEA

### **Proposamena: textuari zera gehitu:**

"Era berean, eskualde bakoitzak beharrezko errekurtso ekonomikoak izango ditu eskualdean sortzen diren aurreikusi eta zentralizatu gabeko gastuei aurre egiteko".

### **azken textua honela geratuko litzateke:**

Diruzantzarako Eskualdeko Arduraduna: Eginkizun horietaz arduratuko den pertsona finko eta iraunkorra izango da. Horrelakorik baldin bada, Eskualdeko Idazkaritzaren kide izango da. Era berean, eskualde bakoitzak beharrezko errekurtso ekonomikoak izango ditu eskualdean sortzen diren aurreikusi eta zentralizatu gabeko gastuei aurre egiteko.

### **Zergatiak:**

Eskualde mailan Diruzantza arduradun bat finkatuko bada, honek eskualdeko gastuei aurre egiteko errekurtso Ekonomikoak eduki beharko litzuzke, eta ez gaur egun bezala (zentralizazioaren ondoren): eskualdean ez dago errekurtso ekonomikorik sortzen diren gastuei aurre egiteko, zentralizatuta daudenak ezik, eskualdearen errekurtso ekonomikoak 0 pztatakoak izanik, eta honela ezin da jarraitu.

"TATEL"  
(Deba Garaia)

## 16. 267. eta 269. LERROALDEAK

### **Proposamena: 267. lerroaldearen edukina kendu eta horren ordez honako hau jartzea:**

Nazional mailako talde finko eta iraunkorra. Ordezkaritzako organu nazionalek emandako jarraipideak proposatu eta garatuko ditu.

**269. lerroaldetik**, bertan aipatzen diren herrialde eta sektoreetako arduradunak kentzea eta honako hauek gehitzea:

- Talde Nazionala.
- Koordinatzaile Arduraduna

### **Zergatiak:**

Nazioarteko organuek behar dutena ez da, hainbestean, "herrialde edo sektoreetako arduradunak", baina bai nazioarte lanerako ardura zehatzak hartuko dituzten pertsonak, zeinnahi delarik bere lan sindikala betetzen duten herrialdea edo sektorea. Errezagoa izango da koordinazio lana betetzea eta

informazioa batetik bestera bidaltzea ohizko egituren bidez (ordezkaritzakoak), nazioarteko berezko eginbeharrak bereganatuko dituzten pertsonak aurkitzea baino.

Funtsezkoena( bestea bigarren mailakoa da, neke handirik gabe bete daitekeena) bere dinamika nazio mailan izango duen talde bat osatzea eta iraunaraztea da, kide guztiak herrialde berekoak edo sektore berekoak izanik ere. Nazioarteko harremanetarako egituren dinamika nazionala izango da eta ez bestelakoa: LAB da (ez Araba, ez Bizkaia, ez Gipuzkoa edo Nafarroa, ez Metalgintza edo Irakaskuntza) beste erakundeekin harremanetan dagoena. Baina horrek ez du galeriko nazioarteko arazo zehatzen inguruan pertsona jakin batzuk egotea (bereziki sektoreetan) gai horien koordinazioa eta jarraipena egiten, baina horretarako ez dute zertan Nazioarteko Harremanetarako Batzorde Nazionalako kide izan behar.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

## **17. 275., 279. eta 284. LERROALDEAK**

**Proposamena: Bai herrialde mailan nola nazional mailan, Idazkaritza Tekniko Juridiko eta Ekonomikoaren osakideetatik (275.,279 eta 284. lerroaldeak) E.E.rako arduradunak kentzea.**

### **Zergatiak:**

Ponentzian bertan aurreikusita dagoenez badago maila bietan (herrialdekoan eta nazionalen) E.E. eta I.I.T.T. bi horien arteko koordinazio bat E.E.-rako Herrialdeko Batzorde Nazionalaren bitartez: ponentzian bertan agertzen denez E.E.-rako H.H.B.B.etan Idazkaritza Juridikoetako herrialdeko arduradunak egongo dira eta E.E.rako Batzorde Nazionalen Idazkaritza Juridiko eta Ekonomikoetako arduradun nazionalak.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

## **18. 289. LERROALDEA**

**Proposamena: 4.4.2.1. eta 4.4.2.1.1. atalen artean ondorengo textua sartzea:**

EUSKALDUNTZEA (E): Arduradun hauen funtsezko lana eta Ardura arloa Sindikatuaren erabateko Berreuskalduntzea bultzatu eta lortzea da. Ez dute nahitaez dedikazio eksklusibodun pertsonak izan behar, Sindikatuaren baitan beste funtzio edo lan bereziak ere bete ahal izango dituztelarik.

### **Zergatiak:**

Beharrezkotzat jotzen dut Arduradun bat maila guztietan (Eskualdea, Herrialdea, Nazionala), baina us-te dut ez duela dedikazio eksklusibodun pertsona bat izan behar, bere funtsezko lana gaiaren plan-gintza eta jarraipena egitea izango bait da, sindikatuaren baitako beste funtzio eta lanak bete ahal izango dituelarik, garbi utzita bere funtsezko ardura arloa Sindikatuaren Euskalduntzea izango dela.

Euskalduntzerako Arduradun Nazionalak ez du Sindikatuaren kargurako dedikazio eksklusibodun Liberatu izan beharrik.

*"TATEL"*  
(Deba Garaia)

## 19. 308. LERROALDEA

### **Proposamena: 4.4.2.5. eta 4.4.2.5.1. atal artean testu hau sartzea:**

"Arlo honen beharra, Erakundearen dinamizatzaile gisa ikusteak, Sindikatuak Euskal Emakume Langilearen arazoa bereganatzeko duen borondatea isladatzen du. Lan-talde baten esku bakarrik utzi gabe, era honetan gure Herriaren askapen nazional eta sozialaren borrokan gizartearen eta geure buruaren eraldaketarako beharrezkoak ditugun elementuak eskuratuz.

Arlo honen berehalako helburuak honako hauek izango dira: Emakumeak lanmunduan bizi duen egoeraren azterketa bat egitea eta emakumeek borroka sindikalean eta Sindikatoan parte aktiboa har dezaten bide egokiak irekitzea. Era berean, azterketak eta proposamenak egitea, zeinak, eztabaidatu ondoren, gure eskuhartze eremuan eman daitezkeen ageriko zein ezkutuko ezberdintasunak hatzeman eta ekiditzeko beharrezko zaigun maila emango diguten".

### **Zergatiak:**

Ez dira jasotzen Arlo honek lortu behar dituen helburuak.

*Arantxa Sánchez (Irún-Hondarribi)*

*Lola Gómez (Bilbo)*

*(Emakume Taldea)*

## 20. 315. LERROALDEA

### **Proposamena: lerroalde hauen ostean berri bat gehitzea ondorengo testuarekin:**

"Liberatuz osatutako ordezkari-tza-egituren izendapen edo hautaketarako erizpide argiak beharko lirateke:

Gaitasun eta militantzia frogatzea.

Antzerako ezaugarriak dauzkaten pertsonen kasuan, emakumeen aldeko bereizketa positiboa egitea.

Lanpostua ez hipotekatzea, pertsona hori sindikatuan funtzionari bihurtzeko arriskua bait dago.

Erantzunkizun kolejiatuak ezartzea, honela denboraldi partzialez aritzeko liberazio asko edo liberazioen txadakotasuna egon dadin.

Beren lanpostuarekin inolako harremanik ez daukaten pertsona liberatu asko egotea ekidin beharko litzateke".

### **Zergatiak:**

Burokratizazioa ekiditeko neurriek argiak izan behar dute.

*Damian Agirremota*

*(Bilboko Udaletxea)*

## **21. 320. eta 321. LERROALDEAK**

### **Proposamena: aipatu lerroaldei gehitu ondoren datorrena:**

- 1.) SINDIKATUAREN SENDOTZE ETA HEDAPENA: presentzia aktiborik ez dagoen tokietan (industri-guneak, tailer txikiak, saltegiak, e.a.), hots, eskuorderik afiliaturik ez dagoen tokietan, eta gure ustez langile kopuru handia daukatenak, inolako antolakuntza sindikalik gabe eta sarritan norabiderik gabe ere, antolatu eta sindikal arazoak bideratzerakoan.
- 2.) ESKUALDEKO IDAZKARITZARAKO EKARPENA barne eztabaidan, eskualdeko estrategian eta tokian tokiko gizarte-lanari buruzko arazoaren beharrezko azterketan, honek eskualdearen ikuspegi zabal eta zehatzago bat ekarriko liguke eta.
- 3.) BLOKERAKO EKARPENA herri mailan bai tokian tokiko zein egungo egoera orokorreko eztabaidetan, bai halaber blokearen beraren ihardueretarako ekarpen militantea. Beharrezkoa da gure eritziz, KASen egituren barruan gure egitarau sozio-politikoak langile eta sindikatuaren ikuspuntutik isladatzeko premia planteatzea.
- 4.) BIZKORTZE LANAK informazioa eta propoganda une puntual eta zehatzetan, ENAMen proiektu sozio-politikoaren bereganatze handiagoa ahalbideratuko dutenak.
- 5.) BURRUKA IDEOLOGIKOA klase kontzientzia berreskuratu beharra, eskualdeko Idazkaritzaren egitura ezberdinekin batera, industriaren beheraldia jasan eta sozialki desloturik dauden guneetan gure helburu estrategikoak lortzeko kontzientziakuntza eta ideologizatze garrantzitsua ahalbideratuko duena.

Zalantzarik gabe askoz ere puntu gehiago erantsi geniezaieke "herrietako LABen aldeko" argudio hauei baina gure ustez oinarritzko 5 puntu hauek gutxienezko eta beharrezko baldintzak dira herri mailako asanbladak piztu eta indartzeko, sindikatuaren egituraren parte hartzeko eta ekarpenak egiteko bitarteko gisa.

### **Zergatiak:**

Lerroaldea luzatzeko egiten dugun proposamen honek badu zergatirik: une honetan industri iharduera dela - eta beharrezkoa den Hego Euskal Herriko herrietan gure sindikatuaren finkatzea ahalbideratuko duten oinarritzko egiturez hornitzeko euskal langilegoak dauzkan beharrak hain zuzen. Horretarako eta luze eztabaidatu eta gogoeta egin ondoren, herrietako LAB izan beharko litzatekeenaren oinarritzko karakterizazioa eta teorikoki eraginkorra eta bideragarria, proposatzen dugu beraietan, arlo ezberdinetarako militantzia dagoen neurrian.

*Luis Fernandez Laso*  
(Ezkerraldea)

## **22. 323. LERROALDEA**

### **Proposamena: lerroaldean dagoen parentesiaren barrukoa aldatzea; dagoena kendu eta horren ordez honako hau jartzea:**

E.E.,E.I.,ANT.-rako Eskualdeko Arduradunak, eskualde horretako Afiliatuen Asanbladak aukeratuak eta Herrialdeko Konferentziak berretsiak izango dira.

### **Zergatiak:**

Argi eta garbi utzi behar da eskualdeko egiturak direla arduradunok aukeratzen dituztenak, nahiz eta herrialdeko egiturek ere parte hartzen duten.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

## **23. 323., 332. eta 338. LERROALDEAK**

### **Proposamena: 323., 332. eta 338. lerroaldeetan ondoko izenok aldatzea:**

- Kordinatzaile Politikoaren ordezkari (nazio mailakoa) KOORDINATZAILE OROKOR NAZIONALA.
- Herrialdeko Idazkariaren ordezkari (herrialde mailakoa) HERRIALDEKO KOORDINATZAILEA.
- Eskualde mailakoa ESKUALDEKO KOORDINATZAILE izango da (E.E./ANT./E.I. ardurak batera hartzen dituenari ponentzian ez zaio izen zehatzik ematen)

Horren ondorioz, ardura horiek aipatzen diren lerroalde guztietan izena aldatuko da.

### **Zergatiak:**

Eskualde, Herrialde eta Nazio mailan dauden ardura paralelo horien artean parekotasuna eta homogeneizazioa begiratzeko asmoz.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

## **24. 324. LERROALDEA**

### **Proposamena: osaketa aldatzea:**

EKINTZA SINDIKALA:

Eskualdean presentzia aktiboa duten Sektore edo Azpisektoreetako Arduradunak.

### **Zergatiak:**

Eskualdeko Idazkaritzan Sail Sindikalak egotea planteiatzen dut.

Alternatiba modura Eskualdean presentzia aktiboa duten sektore edo azpisektoreetako Arduradunak egotea planteiatzen dut, hala nola, Osakidetza, Herri Administrazioa eta Irakaskuntza, gaur egun herrialde mailan koordinatzen direnak eta zenbait eskualdetan dinamika badutenak.

Nire ustez Sail Sindikalak Eskualdeko Idazkaritzan egotea planteiatzeak kide askoz osatutako eta operatibitate gutxi Eskualde batetara zuzenduko gintuke eta Sail Sindikalekiko koordinazioa Ekintza Errebindikatiborako herri edo eskualdeko Arduradunen bidez eman behar da.

*"TATEL"*  
(Deba Garaia)

## 25. 327. eta 332. LERROALDEAK

### **Proposamena:**

- **327.** lerroaldian Eskualdeko Euskalduntzerako Ardura sartzea.
- **332.** lerroaldian, "Lan arloak" atalean, Herrialdeko Euskalduntzerako Ardura sartzea.

### **Zergatiak:**

289. eta 290. lerroaldietan Euskalduntze lan arloari buruz hitz egiten denean, arlo honeri dagozkion eginkizun eta organuak argi gelditzen dira. Euskalduntze helburuari egokiro aurre egiteko behar-beharrezkoak direla eskualde eta herrialde mailako ardurak, esaten da. Baina ondoren eta lurralde mailako egiturak aipatzerakoan (hain zuen barne egitura hauetan gara dezakete hobekien lan hori) akats batengatik ez dira aipatzen.

*Javier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 26. 329. LERROALDEA

### **Proposamena: osaketa aldatzea:**

"Afiliazio kopuruaren arabera, Eskualdetako Afiliatuen Asanbladetan aukeratutako pertsonak (%60)".

### **textua kendu eta jarri:**

"Eskualdeko Idazkaritza osatzen duten pertsona guztiak".

### **Zergatiak:**

Ez deritzot egoki HKra joateko Eskualdeko Afiliatuen Asanbladaren bidez aukeratzea, prozesua oso geldoa izango bait litzateke aztertuko den gaia eta botua eman beharrezkoa adierazi beharko litzatekeelako. Asistentzia eskualdeko idazkaritzako kideena bada, berriz, presentzia minimo baino kualifikatua bermatzen da, ezagunak bait dira aztertuko diren gaiak eta aurrez azertuak bait daude eskualdeko idazkaritzan. Ezin dugu egin Herrialdeko Konferentzia bat egiten dugun bakoitzean kongresuaurreko fase antzeko bait da, hau izanik ponentziak egiten duen proposamenak eramango gintuzkeen dinamika.

Hala ere, ulertzen dut eta bat nator, ordezkaritza eskualde edo herrialde bakoitzeko afiliazio erreala-  
rekiko proportzional izan dadin, asistentzia mekanismo bat ezarri beharrekina, bai HKtarako, bai  
BNetarako, alde batetatik esturturen arauera eta, bestetik afiliazioaren arauera. Honek nola izan  
beharko lukeen ez dadin, baina sakondu beharko da.

"TATEL"  
(Deba Garaia)

## 27. 331. LERROALDEA

**Proposamena: lerroaldearen zati bat kendu ("Herrialdeko Idazkaria..."-tik aurrerakoa) eta horren ordean honako hau jartzea:**

..., Herrialdeko Idazkaria barne, Kongresuan, herrialde bakoitzetik joaten diren delegatuek Herrialdeko Idazkaria aukeratu ahal izango dute, Kongresuko Araubidean hala zehaztuta baldin badago.

### Zergatiak:

Argi eta garbi utzi behar da dagokion herrialdeko egiturak direla ardura hori hartuko duen pertsona aukeratzeko dutenak.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

## 28. 334. LERROALDEA

**Proposamena: osaketa aldatzea:**

Barne Antolaketa Arduraren eta Herrialdeko Idazkaria Area bakar batetan batzea.

OSAKETA HONELA GERATUKO LITZATEKE:  
EKINTZA ERREIBINDIKATIBOA: DAGOEN BEZALA

EKINTZA INSTITUZIONALA: DAGOEN BEZALA

APARATUAK: Antolaketa Arduraren Eskualdeko Arduradunak (EE eta EI)  
Herrialdeko Antolaketa eta Barne Antolaketa Arduraduna.

### Zergatiak:

Ez dut ulertzen zergaitik bi pertsona funtzioetarako Aparatuak atalean: Bat Herrialdeko Idazkari modura eta bestea Barne Antolaketa Arduraren Herrialdeko Arduradun modura, uste bait dut biak osagarri izan behar dutela eta pertsona bakar batek gara ditzakela.

Ardura Area bakar batetan batzea planteiatzen dut.

"TATEL"  
(Deba Garaia)

## 29. 335. LERROALDEA

**Proposamena: "Osakideak" baino lehen beste lerroalde hau gehitzea:**

Funtzioak:

- Kongresu-artearen goreneko organua izango da. Beraz, Kongresuen bitartean jorratu beharreko gaietaz arituko da, nahiz eta gai horiek Kongresuari berari dagozkion.

- Kongresuetan erabakitakoaren garapena baloratzeko eta zuzentzeko mekanismoa da.

- Idazkaritza Nazionalean hutsik gera daitezkeen ardurak betetzeko pertsonak aukeratu eta izendatuko ditu.

- Era berean, Idazkaritza Nazionalak proposatutako gai zehatzak jorratuko ditu

**Zergatiak:**

Beharrezkoa da bere funtzioen zerrenda zehatz-mehatz eta xehetuki agertzea.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

**30. 335. LERROALDEA**

**Proposamena: izena aldatzea.**

335. lerroaldean "Batasuna Nazionala" izena aldatu eta horren ordez KONFERENTZI NAZIONALA jartzea, bai lerroalde horretan nola -horren ondorioz- organu hori agertzen den guztietan ere.

**Zergatiak:**

"Herrialdeko Konferentzia"rekiko parekotasuna eta homogeneousazioa begiratzeko.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

**31. 335. LERROALDEA**

**Proposamena: osaketa aldatzea:**

"Afiliazio kopuruaren arabera Eskualdetako Afiliatuen Asanbladetan aukeratutako pertsonak (%60)".

Textua kendu eta jarri: "Eskualdeko idazkaritzak osatzen dituzten pertsona guztiak".

**Zergatiak:**

329. lerroaldeari enmendakina aurkeztera eraman nauten arrazoiak berdinak dira.

Zehaztu beharko litzatekeena da nola egin eskualde eta herrialde bakoitzeko ordezkariak Estruktura-  
turetako ordezkariak eta Herrialde bakoitzeko afiliazio errearen arauerakoa izan dadin. Ez daukat erantzunik.

*"TATEL"*  
(Deba Garaia)

## 32. 335. LERROALDEA

### **Proposamena: ondorengo testua gehitzea:**

"Batasun Nazionala hizpidez baina hautespiderik gabe joateko aukeraz irekiko da. Gaiari arabera, arazoak pairatzen dituzten eta protagonistak diren pertsonak, edo gaiok sakonki ikertu dituztenak gonbidatuko dira beren beregi.

Nazio Batasunak biltzarre batetarako deialdia egiteko ahalmena dauka, beti ere erabakia bere %60k hartu baldin badu."

### **Zergatiak:**

*Damian Agirremota*  
(*Bilboko Udaletxea*)

## 33. 336. LERROALDEA

### **Proposamena: 336. lerroaldea baino lehen eta 4.5.3.1. atalaren barruan lerroalde berri bat gehitzea.**

Funtzioak:

- Kongresu-arteke zuzendaritza nazionalerako organua izango da.
- Kongresu eta Batasun Nazionalerako erabakiekin bat etorritik eta horien garapen legez, eskuhartze konkreturako bideak eta ildoak ezartzerako orduan, eztabaidatu eta erabakiak hartuko dituen gunea izango da.
- Bai barrurako nola kanporako erakundearen ordezkaritza funtzioak bereganatzen ditu.

### **Zergatiak:**

Beharrezkoa da bere funtzioen zerrenda zehatz-mehatz eta xehetuki agertzea.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(*Ponentzi-Batzorde*)

## 34. 337. eta 338. LERROALDEAK

### **Proposamena: 337. eta 338. lerroaldeak berri bat sartzea:**

Idazkaritza Nazionaleko bokalak ere Kongresuan aukeratuak izango dira. Hizpiderako eta botua emateko eskubidea izango dute, baina ez dute I.N.-ean dauden arduretatik bat bera ere bereganatuko. Nazio mailako zuzendaritzarako organu horri aportatzeko duten gaitasunagatik dira aukeratuak.

338. lerroaldean, I.N.-eko kide legez honako hauek ere sartzea:

- Bokalak:
- \* Arabatik: pertsona bat
- \* Bizkaitik: pertsona bi
- \* Gipuzkoatik: pertsona bi
- \* Nafarroatik: pertsona bat

### **Zergatiak:**

I.N.-ari ematen zaion betekizuna eta izaera kontutan harturik, egokia da bertan aportatzeko gaitasun berezi eta kualifikatua izanik, I.N.-eko ardurarik bereganatu ezin duten –edozein delarik arrazioa– erakundeko militanteak (zeinnahi izanik beren esparrua: Ekintza Sindikala, Aparatuak,...) egotea.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

## **35. 338. LERROALDEA**

### **Proposamena: osaketa aldatzea:**

Ekintza Errebindikatibo Atala: Administrazio Publikorako Ardurak kendu. Gainontzekoa dagoen bezala.

Aparatuak: Idazkaritza Tekniko Juridikorako Arduradun Nazionala eta Ekintza Instituzionalerako Arduradun Nazionala batu.

Aparatuak honela geratuko lirateke: Idazkaritza Tekniko Juridiko eta Ekintza Instituzionalerako Arduradun Nazionala. Gainontzeko aparatuak dauden bezala.

### **Zergatiak:**

Ez dut ulertzen zergaitik sartzen den Administrazio Publikorako Arduradun Nazionala eta ez beste Sektore batzuetakoa, Irakaskuntza edo Osakidetza adibidez. Zergatik batzuk bai eta besteak ez?

Baita ere planteiatzen dut, 225. lerroaldiari egindako emendakinan 225 atalean (4.3.3.3. EEN) adierazi bezala, Ekintza Instituzionalerako Arduradun Nazionala eta Idazkaritza Tekniko Juridikorako Arduradun Nazionala ardurak bakar batetan biltzeko arrazoiak, IDAZKARITZA TEKNIKO JURIDIKO ETA EKINTZA INSTITUZIONALERAKO ARDURADUN NAZIONAL izenpean, pertsona bakar batengan. Arrazoiak da Ekintza Instituzionalari dagokionean, LHKn bakarrik hartu dezakegula parte, ordezkari-tza instituzional sindikaldun beste erakundeetan gure presentzia betatua dagoenez, hala nola: OSA-LAN, INSS, ISM, INEM, FOGASA,... Honengaitik uste dut bi funtzioak osagarriak dira.

*"TATEL"*  
(Deba Garaia)

## **36. 341. LERROALDEA**

### **Proposamena: I.N.I.-ren osakideen artean honakoak ere sartzeari:**

– Komunikaziorako Arduradun Nazionala.

– Idazkaritza Tekniko Ekonomikoaren Arduradun Nazionala.

### **Zergatiak:**

Komunikaziorako Arduradun Nazionala bertan sartzeko arrazoiak, delako Arduradunak erakundearen dinamika orokorra eta baita konkretua ere ber-bertatik ezagutu behar duela da (ondo kokatuta egon

beharko da) batez ere komunikabideekiko alorretan (erakundearen posizionamendu eta erantzunak...). Horren ondorio zuzena aparatuaren beraren eraginkortasuna bizkortzea izango litzateke.

Gai ekonomikoak gure eskuhartze puntualerako (hala erantzun orokorretarako nola eskuhartze sindikal bera kokatzeko orduan egoeraz jabetzeko ere) alor behinen eta gakoa izanik, Idazkaritza Tekniko ekonomikoaren Arduradun Nazionala nazio mailako buruzagitza organu horretan egotea beharrezkoa jotzen da.

*Jabier Ignacio de Luis Heras*  
(Ponentzi-Batzorde)

### **37. 342. LERROALDEA**

#### **Proposamena: lerroaldea ondorengo testuarekin osatzea:**

"BILTZARREA.- Lau urtean behin egingo da gutxienez.

Aparteko biltzarrerako deialdia egin ahal izango da, Nazio Batasunak beharrezko eritzi eta bere %60k hala erabakitzen duen guztietan."

#### **Zergatiak:**

*Damian Agirremota*  
(Bilboko Udaletxea)